# Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean (1945-53)

Aitor Ortiz de Pinedo

▶ To cite this version:

Aitor Ortiz de Pinedo. Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean (1945-53). 2009. artxibo-01965790

HAL Id: artxibo-01965790
https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01965790

Submitted on 17 Jan 2019

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Euskal literatura *Gernika* aldizkari liberalean (1945-53)

Aitor Ortiz de Pinedo

ERROTETA

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du*

© Erroteta argitaletxea
ISBN: 978-84-92413-75-1
Lege Gordailua:

Diseinua, maketazioa eta ekoizpena: Joseba Berriotxoa
www.erroteta.com

Printed in EU.
Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-aren jabeen baimenik gabe.

# Euskal literatura *Gernika* aldizkari liberalean (1945-53)[1]

## Aitor Ortiz de Pinedo

*Yolandari*

# Aurkibidea

1. Sarrera
2. Gure lana
    2.1. Helburuak eta azalpenak
    2.2. Izenburua
    2.3. Aurreko azterketak
3. Gernika aldizkaria
    3.1. Aldizkariak aztertzeko metodologia
    3.2. Ereduak aplikatzea
    3.3. Giza-taldea eta beste zenbait datu
4. Gernika aldizkariko euskarazko literatura
    4.1. Literatura aztertzeko metodologia
    4.2. Lore Jokoen ondorengoak
    4.3. Gerraren aurreko joeren jarraitzaileak
    4.4. Berritzaileak
5. Bukatzeko
    5.1. Aldizkaria
    5.2. Literatura
6. Bibliografia
7. Oin-oharrak

## Sarrera

*Gernika* izeneko aldizkari kulturala ezagutarazi nahi dugu lan honetan. Zortzi urtez iraun zuen gorabeherak gorabehera. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz sortu zen giro latzaren ume da. Bertan idazten zuten: erbesteratuek nagusiki, iparraldeko zenbait herritarrek, zenbait euskalarik eta Francoren diktaduraren menpe bizi ziren beste batzuek. Bere lerro editoriala eta asmo politiko-kulturalak ez ziren kabitzen diktadura ezarri berriaren koordenaden barnean.

Espainiako Gerra Zibila (1936-39) Hegoaldean, eta II. Mundu Gerra (1939-45) Iparraldean elkarren segidakoak izan ziren kronologikoki. Horrek esplika lezake zelanbait desertu kulturalaren modukoa zabaltzea, eta XXI. mendeko gizakiak garai zail haietako ezer gutxi izatea oroimenean sarri, letren esparruan behinik behin. Amnesia hori eten ohi dutenak komunzki *Egan* (1948an sortua) eta *Euzko-Gogoa* (1950an sortua) aldizkariak izaten dira. Argitaratze kontuez ari garela, plazaratutako liburuak benetan urriak izan ziren, eta geroago azalduko dira.

Izan ere, aldizkariko artikulugintzak idazleari ahalegin txikiagoa eskatzen dio. Kontuan izan euretako asko militarrek "etxetik bidalitakoak" zirela, *Gernika*ko fundatzailea eta lehen zuzendaria izan zen Rafael Picaveak ironikoki zioen moduan lehen zenbakian. Publikazioaren eskribatzaileak erromes zebiltzan maiz, legezkotasun irauliaren intelektual ugari bezala: A. Ibinagabeitia errepresiotik ihes eginda; Orixe kazetaria, Errepublikarekin euskal idazleentzat posiblea izan zen patxada galduta; I. López Mendizabal, A. M. Labaien, Basarri eta F. Krutwig politika-arrazoiengatik atzerriratuta.

Guztiarekin ere, diasporako euskaldunek jakin zuten entzunarazten euren ahotsa nola edo hala. Agerkariak ugaldu zituzten Parisen eta Londresen, Mexikon, Caracasen eta Buenos Airesen. Xede politikoak zituzten batez ere sarri askotan; ez beti. J. M. Barandiaranek Baionan sortu *Eusko Jakintza*k (1947-57), eta *Gernika*k berak, euskalaritzaren alorrean gogoangarriak diren ekarpenak ar-

gitaratu zituzten adituek diotenez (J. Haristchelharrek, P. Iztuetak...).

Dudarik gabe, darabilgun publikazio honetako artikulu eta poema batzuek historia egin dute, eta han-hemenka daude jasota garai-giro honetaz azken urteotan egin diren lanetan; hau da, antologikoak bihurtu dira. Gaurkotasuna badute, beraz.

Esaterako, P. Iztuetak ondo erreparatu zien Orixek hemen argitaratutakoei, beraren lanak paratu eta aztertu zituenean idazlearen mendeurrenean. Hiruhilabetekari humanista hau "eztabaida-lekurik freskoenetako bat" iruditu zitzaion, eta arretaz irakurri beharrekoa lehen gerraoste hartako euskararen egoeraz jabetzeko[1].

Aldizkari-bildumen azterketarik egin da lehenago ere gure artean. *Jakin*-ek, 25. urteurrenean (1981) atzera begirakoa egin zuen, eta argibide batzuk eman zituen hartzen zuen eginbidearen interesgarritasunaz; pentsatzen dugu geuri ere apropos datozkigula. Diote historia magistra vitae izan, eta gazteagoek aurreko belaunaldiak ezagutu behar dituztela, eta baita beraien arteko gatazkak… Jakingarritzat dauzkate era berean aldizkariaren "jaiotzako asmoak, jasandako estutasunak, pasatako larrialdi ekonomikoak". Gaineratzen dute:

> "arrazoi bertsuengatik, baita oso interesgarri deritzagu gerra aurreko eta ondoko mugimendu, orduko aldizkari, talde eta abarren historia bere inguruan kokatu, banan-banan arakatzeari"[2]

Jon Kortazar (1989) ere arduratu zen gerraurreko *Euzkerea* eta *Yakintza* aldizkarietan argitaratu zen olerkigintzaz.

Beste interesgune bat da *Gernika* aldizkariak duen idazleen nomina. Goian eman ditugunez gain: I. Larramendi, J. Etxaide, Iratzeder, E. Erkiaga, D. Dufau, Tx. Peillen., J. Azpeitia... idazleetan; R. Lafon, G. Lacombe, H. Gavel, J. Gorostiaga, C. Pitollet... hizkuntzalarietan. Nahiz ez denek neurri berean idatzi, lortu zen kalitatemailaren erakusgarriak dira. Euskal filologiaren eta literaturaren alor zabalarekin zerikusi zuzena ez zuten beste batzuk ere badira: E. Salaberri europeista euskalduna, M. Legasse letra-gizon eta politikaria, J. Thalamas ikertzailea, I. Fagoaga publizista, Víctor Ruiz Añibarro (Errea) kazetari umorista, J. Galíndez legegizon zoritxarrekoa…



Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, aipatutakoek eta beste batzuek, polemika gogoangarrietan gai hauek izan zituzten solasgai: lapurtera klasikoa, lexikografia, nazio izenak (Euzkadi/Euskal Herria), "liburu lizunak"...

Orrialde eklektiko hauetan sentsibilitate erromantiko berantiarrak ere lekua izan zuen gaurkoago zaizkigun molde modernoen ondoan, eta horren erakusgarri dira: J. Aldaberen, I. Larramendiren eta, bereziki, D. Dufauren lanak… Deigarriak dira, eta ziurki iraungitzear dagoen mundu baten azkenetako aztarnak.

G*ernika*k jaso du beste luma-gizon batzuen arreta ere: M. Pelay Orozko donostiarrarena, eta J. R. Zabala filosofoarena behin baino gehiagotan[3]. Euskarri berari hainbat begirada bota dakizkioke segur.

Filologia- eta hizkuntzalaritza-alorreko lanak ere badira publikazioaren orrialdeetan, eta ez nolanahikoak. Bestek horien berri eman dute. P. Iztuetak (1987) hizkuntzaren inguruko polemikak haizatu ditu; P. Goenagak (1999) agertu ditu aldizkarian toki dezente duten Orixeren ikuspegi gramatikal eta linguistikoak.

Ez dira beti eredugarriak euskal filologiaren arlo zabalaren barruan koka daitezkeen euskarazko, frantsesezko eta gaztelaniazko dokumentuak. Zientifikotasuna ez dute beti alde, adibidez, etimologia eta berreraikuntza saio batzuetan. Kasurako, C. Pitollet-ek "hamaika" zenbakia Bibliatik eratorri nahi du; deabruaren zenbakia da, bere ustez. Deitoratu egiten du euskara galtzearekin horrelako aztarrena baliotsuak ezkutatzea[4]. Okultismo saioa dirudi.

Bestalde, toponimiaren atalak ere gehiegizko askatasunerako bide ematen du: jatorrizko fonemen baliokide berriak ez dira banan-banan ematen, eta lege fonetikoen oinarrizko arauak ez dira errespetatzen batzuetan. Eta badira horrelakoak, egileek eurek duten ezagutzaren mugak zenbaitetan aitortzen badituzte ere.

Beste batzuetan badira serioak direlako ospea lortu duten hizkuntzalariak. Saio luzeak egiten ditu S. Altubek azentuazioaz; R. Lafonek soziolinguistikari buruz hitz egin zuen Euskaltzaindian sartzean, eta ordukoa argitaratuta dator; J. Gorostiaga, H. Gavel eta G. Lacombe ere kolaboratzaileak dira. Badira honi guztiari gaur egun duen balioa tentuz aterako dioten adituak. Hona arte hasierako gainbegiratua.

*Gernika* aldizkarian Euskal Herriak izan duen tradizio modernoa errebindikatzen da eta gizartea eta gazteria aurreratu daitezen ahalegintzen dira publikazioaren bitartez. Azpimarragarria da pertsonaia historikoak berreskuratzeko duten irrika. Hizkuntzari kasu eginez, gaztelaniaz edo latinez mintzatu zen gehienbat tradizio hori. Euskal hiztunak izanagatik, Berpizkundeko M. Azpilkueta, J. Uharte Donibanekoa, Frantzisko Xabier Deuna bezalakoek lanak ez zituzten euskarazkoak. Ilustrazioaren tradizio euskalduna ere ohoratu nahi dute, bereziki Azkoitiko Zalduntxoena. Talde horretakoa izan zen euskal antzezlan baten autorea, Peñafloridako kondea.... Aldiz, erdaldunak ziren: Vitoriako Anaia Frantzisko eta Karrantzako Bartolome. Historiaren atal eta pertsonaia horiek aldarrikatzen ditu sutsuki *Gernika*k bere gaztelaniazko orrialdeetan.

Euskarazko letrek, aldiz, modernizatze hori XX. mendean egingo dute. Aldizkari honetako idazlerik berritzaileenak (F. Krutwig, J. Mirande) ontzi horretan sartuko dira; beste batzuek tradizioari eutsiko diote (E. Erkiagak, Inazio Eizmendik (Basarrik), D. Dufauk). Esan dezakegu Gernikaren azpitituluan (*Cahiers de culture humaniste*) aipatzen zen "humaniste" kalifikatzailea euskaraz idazten zuten idazleek ere bere egin zutela, eta publikazioak biltzen zituen *Gernika laguntartea* izenekoaren kideek kezkak erdibanatu zituztela, izan hizkuntza batekoak edo bestekoak.

1956koa da, 1936ko eten militar elkorra eta gero, Hegoaldean Modernitatea konbentzionalki berrartzen den urtea; beherago agertuko dira horren zergatiak. Batzuek 1964 nahiago dute. 1940-55 tarte malgu horretan gizarteak eta ekonomiak Espainian atzerakada itzela egin zuten, gerraren hondamendiagatik, eta erregimen berriaren izaerak atzerapauso ekonomikoagatik. Gizarte tradizionaletik Modernitaterako trantsizioan kokatzen da *Gernika*, nahiz eta bere asmo deklaratuak zeharo aurrerakuntzaren aldekoak izan. Badoan herri taxu baten nostalgia ere adierazten da: Iparraldeko turismo gero eta indartsuagoa errezeloz hartzen da (D. Dufauren, E. Salaberriren eta M. Legasseren iritzietan, kasu). Industriak Hegoaldean dakarren etorkin-uholdeak jarrera berriak eskatzen ditu, esaterako J. Galindezen eta R. Picavearen *ekonomia sozialar*en asmoetan nabari denez. Aitzitik, artikulu batean herrietako kanpai zaharren hotsak birgogoratzen dira lehenminez... Baina aldi berean garraiobideen azkarragotzea konstatatzen da. Herri-musika ere gaurkotu nahian dabiltza (F. Madina)... Aldizkaria plaza bat da gizarte berriak etengabe sortzen dituen arazoak eztabaidatzeko. Euskaraz eta gaztelaniaz suma dezakegu tonika hau. Euskara doitu nahi dute gizarte moderno batean eskatzen zaion bezala funtziona dezan. Ez zen lehenengo modernizazio-saioa historiari erreparatuta, baina bai ezaldi baten ondoren etena haustea.



K. Mitxelenak 1960an zera proposatzen zuen: Europatik ekartzea jadanik Euskal Herrian ziren industriak ez ezik jakintza ere[5]. Zioen han bageneukala zer ikasia ugari luzarorako, eta Peñafloridak eta inguruko zalduntxoek XVIII. mendean hasi zuten lanbidea zain geneukala, besteok ez dugulako aurrerarazi gehiegi geroztik.

Fruituak eman zituen programa hori berori zeukan *Gernika*k 40ko eta 50eko hamarkadetan bederen. XX. mendeko euskal literaturak eman ditu urratsak bide horretan. Balantze moduko bat ez ote da komeni? J. L. Alvarez Enparantza euskaldun egin da. Peru Leartzako budista ere ezagutu dugu. Poesia sozialaren oihartzuna jaso dugu. "Askatasun sexualak" egin du leku bazterrotan. F. Nietzscheren ezagupidea egin zuten J. Etxepare medikuak eta J. Mirandek, eta filosofo alemaniarraren ildoa jarraitzen dutenak badiztugu gure artean: F. Foucault nietzschear frantsesaren irakurle da F. Rodriguez euskal idazlea, adibidez. Baina, horrelakoen ondoan 2009 honetan Peru Abarkaren ontasuna eta gizalegea balekotzat jotzen duenik ere bada, K. Mitxelenaren arabera humanista baitzen, baina beste humanismo batekoa. Errenteriakoak lehen nobela-saiakeratzat daukan *Peru Abarka* ("primer conato de novela ", beste ba-

tzuek *moderno* gisa kalifikatzen dute, oker ez bagaude. Albainuan baino ez ditugu hariok emango, gure jomuga historia horren kapitulutxo soila baita, datu zehatzagoen bila.

Zenbait itaun para genitzake. Irabazian atera al gara beti Europarekiko tratuan? Modernitatearen aurreko hemengo mundu hurbila nolakoa zen bere idazlanetan? Iraunaraztea merezi duen zerik izango zuen... Garai hori ezagutzeko beta izan nahi genuen azterketa honekin. Bide beretik, F. C. Crews irakasleak dio kritika literarioa norberak begiko dituenak aukeratzean eta bereiztean datzala, eta ariketa hau gogoeta morala eta kulturala dela[6]. Hala iruditzen zaigu, baina datu positiboek inpresionismo hutsa gainditzen lagundu behar dute. Batzuetan literatur historia antsikabeki egiten da, aldizkatzen diren testuak irakurri gabe, alegia. Oraingo honetan testuetatik abiatuko gara.



# Gure lana

## Helburuak eta azalpenak

Tarte honetan proiektuaren nondik norakoak azaltzen saiatuko gara. Lanaren helburua da 1936ko gerraren ondoan izan zen emaitza literarioa sakonago eta zabalago ulertzea. Urte batzuk geroago (1960 inguruan) modu esanguratsuan aldatu zen euskal literatura. Batzuen ustez 1956an izan zen, beste batzuen ustez 1964an izan zen. Orduan sekularizazioa nagusitu zen, eta urteen poderioz kanpoko eragina nabarituko zen adibidez existentzialismoa (Txillardegiren eleberriak) eta marxismoa (poesia soziala) zabaltzean.

Sasoi hartan ekonomiak garapen industrial hazkorra ekarri zuen, eta euskara komunikabide zuen munduak egokitzapen handia egin behar izan zuen. Ordura arte sendo zirauen lehen sektoreko arrantza zein nekazaritza minoritarioak bihurtu ziren era nabarmenean.

Literaturaren arlo mugatuagoan eleberri kostunbristak bere aldia egina zuen. Hiria bihurtuko zen gizartearen ardatz. Literaturak aldaketa horiek nola islatu zituen zehaztu nahi dugu, besteak beste zer izan zen aldatu beharrekoa, eta zergatik ziren egokitzapenak ezinbestekoak. Aipatu dugun Modernitatearen jauzi hori nola gauzatu zen zehaztu nahi dugu.

Historian hurbil ditugun belaunaldien kezkak eta jokabideak jakingarriak zaizkigu. Hain juxtu, gerraosteko idazleek erbestean lan egin zuten edo erdi-ezkutuan, eta pasarte zenbait ez dira argiro ezagutzen.

I. Sarasolak (1971) *jarraipenaren belaunaldia* deitu zion gerra ondoko etena apurtu zuen idazleen multzoari. Literaturaren historiako atal hori zabalago ulertzen saiatuko gara.

Alderdi hauek ikusmiratzeko *Gernika* aldizkaria hartu dugu aztergai. Osotasunean hartuta, gerraoste honetan duintasun maila gogoangarria lortu zuen aldizkari kulturala da.

Hemen, ordea, ez dugu erdarazko artikulugintza arakatuko. Literaturaren historiaren atal bat ikertzen ari garenez gero, euskarazko orrialdeak aztertzea izango dugu jomuga. Areago, euskaraz literatura –gaurko zentzuan– idatzi duten idazleen lanak analizatuko ditugu. Literaturaren definizioa ez da egonkorra objektu zientifiko gisa. Kontzeptuaren esanahia aldatu egiten da historian zehar. Dotrinak eta liburu aszetikoak nekez sartuko lirateke azken 50 urteotako literaturaren historian. Arloa zedarritzeko, lan honetan literaturaren azpitituluan hauek sartuko dira batez ere: poemak, bertsoak, narrazioak, entseguak eta literaturaren inguruko iruzkinak. Entseguak, narrazioa edo lirika landu duten autoreenak izango dira gehienetan.

Idazki literario guztiak ez ditugu analizatuko. Gehien-gehienak bai. Idazle emankorrenak sartuko ditugu aztertzeko aukeratuko dugun laginean. Horrek idazle bakoitzaren soslai biografikoa eta literarioa ezagutzeko beta emango digu maiz, hau da, testuak inguru batean eta continuum batean txertatzekoa. Bost idazki inguru argitaratu dituztenak hartuko ditugu kontuan sistematikoki.

Bestalde, erdarazko lanen artean editorialak hartuko ditugu kontuan; aldizkariaren joera nagusiak zehazteko balioko digute. Izan ere, aldizkariaren barruan batasuna dago idazleen artean, eta "Gernika lagunarte" aktiboa osatu zuten. Euskal idazleak ere izpiritu honen partaideak izango dira, eta, ikusiko dugunez, idazkietan izpiritu-batasun hori erakutsi zuten.

Metodologiaren aldetik, ikerlan honek gizarte- eta historia-testuinguru zabalean hartuko du kontuan aldizkariko euskal emaitza literarioa. Azalpenak taxutzeko erabiliko dira idazleen biobibliografiak, erbesteko eta *barne*ko egoera politikoa, bereziki EAJ alderdiaren ibilbidea.

Aldizkaria hirueleduna da, eta euskarazko produkzioa guztiaren ehuneko hogeita hamar ingurukoa da. Publikazioa batasun gisa aztertuko dugu. Idazleak bildu zituen plataforma ezagutu beharko dugu, eta proiektuaren muina ere bai.



Aldizkaria aztertuko dugu beste batzuek aurretik egin duten eredura. Baliatuko ditugu inguruko literaturetan (Galiziakoan, Kataluniakoan, Espainiakoetan) edo gurean egin direnak (*Euzko Gogoa*ren azterketa burutu zuen J. Intxaustik). Eredu horiek *Gernika* aldizkariari aplikatuta nolako aukerak zabaltzen diren ikusiko dugu. Zenbait xehetasunek parekorik izango ez balute ere, beste batzuk iradokigarriak izango direlakoan gaude, eta aldizkariaren errealitatea hobeto ulertzen lagunduko digute.

Kontzeptuen alorrean saiatuko gara humanismoaren definizioa argitzen era induktiboan, hau da, editorialetan eta artikuluetan esaten denetik aterata kontzeptuaren esanahia.

Literatura aztertzerakoan O. Paz-i (1974) lotuko gatzaizkio. Modernitatearen definizioa ematen du, eta beraren ezaugarri batzuk zerrendatzen ditu. Gero Europan zeharreko autore giltzarriak hautatzen ditu eta analizatzen irizpide horien arabera. Ez du literaturaren historiarik egin nahi, ez baitu sistematikoki jorratuko inongo eperik, bai ordea poeta gisako ibilbidean eragin diotenak. Guk, baina, dagozkigun zortzi urte hauetan (1945-53), aldizkariko idazleak analizatuko ditugu publikatu zuten lan-kopuruaren arabera, eta ez balio juzku baten arabera. Autore batzuk gaur ahantzita daude (J. Aldabe eta I. Larramendi), beste batzuk berreskuratze-prozesuan (D. Dufau) eta beste batzuk ezagunak egin dira, baina denak dira baliagarriak literaturaren garai bat deskribatzeko, nahiz eta ez izan literarioki gailenak. O. Pazen tesia da poesia eta Modernitatearen artean gatazka dagoela, aurre-erromantikoetatik hasi eta gaur egunera arte. Jakina denez, XX. mendeak ezagutu zituen bi mundu gerrek, mehatxu nuklearrak eta abarrek kolokan jarri zuten aurrerakuntza etengabearen postulatua. Poesia historiarekin batera hazi da.

Bada, O. Pazek Modernitatearen ezaugarriak ematen ditu eta guk idazlan bakoitzean nola agertzen diren analizatuko dugu.

Literaturaren kritikak erabili du Euskal Herrian ere metodologia hori. Ikusi adibidez R. Mielgok (1995) E. Erkiagari buruz egin zuen lana.

Aipatu dugun tresneriak literatura lagin baten ikuspegi saturatua ematen lagunduko digula uste dugu. Hori izango da gure azterketa balidatzeko irizpidea. Hau da, ikusi beharko dugu interpretazio honek osotasun koherente batean integratzen dizkigun testu guztiak. R. Barthesek baldintza hori betetzea eskatzen zien literatur ikasketei[7]. G. Frege logikariaren arabera saturatugabeko adierazpidea da suplementazioa behar duena erabateko zentzua izan aurretik. G. Fregek[8] "Zesarrek Galia konkistatu zuen" esaldia aztertu zuen. Bi motako osagaiak ditu. Batzuk beteak dira besteak saturatu gabeak. *Zesar* eta *Galia* objektuei dagozkie, *konkistatu zuen* osagaiak hutsuneak beteta izan behar ditu zentzu osoa adieraziko badu. Beraz, helburu bat izango da marko teorikoak oinarria izatea egingo ditugun testu analisetan, autoerreferentzial hutsa izan gabe.

Marko honen osagarri modura J. Miranderen egingo dugun azterketa paraleloa etorriko da. Beraren literatura- eta entsegu-lanetan faxismoaren ezaugarri bereziak identifikatu ote daitezkeen aztertuko dugu.

Esanda datorren bezala, gure asmoa da aldizkari euskaltzalea beraren giroan kokatzea, bertako literatur agerraldiak historian kokatzea eta Modernitatearen ikuspegitik aztertzea.



# Izenburua

## "Gernika"

Aldizkariak Bizkaiko hiri foraletik hartu zuen izena. Esangura bikoitza du hiribilduak hasierako talde eragilearentzat. Altxamendu nazionalak zapuztutako Junten kokalekua da, batetik; bestetik, azken gerra zibilean frankisten aliatu naziek baliatu zuten probaleku militarra izan da. Bonbardatu, eta historian inoiz ez bezala, biztanle zibilak masiboki sarraskitu dituzte aireko erasoen bidez.

*Bakearen hiria* esaten diote orain, eta Bakearen Museoa ere jarri dute. Alemaniako hiri batekin (Pforzheim) anaitasunezko hitzarmena egin dute. Badira alemana ikasteko akademia, *Goethe Institut*-ek jarria, elkar ezagutzeko ibilaldiak eta abar. Gobernu alemaniarrak diruz lagundu du bertako polikiroldegia.

*Gernika*ko argitaratzaileek hiri foralaren sinboloaren bitartez aldarrikatu nahi zutena, eta Euskal Herri osorako proposatzen zutena ez zebilen hain aparte, lerro editoriala mamitu zutenean. Izan ere, adierazgarriak dira aldizkariko azpitituluak: "Cahiers collectifs de culture humaniste", batzuetan; beste batzuetan, "Cahiers de Culture humaniste basque", "Revista trimestral al servicio del humanismo popular vasco"... 1952ko zenbakian, adibidez, atariko irudietan mokoan olibondo-adaxka daramatzaten bi uso dabiltza arbolaren inguruan; arbolaren enborrak gurutzearen tankera dauka.

Irakurleari ohartaraziko diogu astuntasuna saihesteko *Gernika* izeneko publikazioari substantibo bat baino gehiago jarriko diogula: *aldizkaria, agerkaria, koadernoak, kaierak*... protagonista izan zirenek antzera deitu baitzioten (revista, Cuadernos, Cahiers...).

*Gernika*ren historiaurre zehaztugabean aipatu behar dugu Gasteizeko Apaizgaitegian argitaratu zen *Idearium* aldizkaria. 1934-35 bitartean 10 zenbaki jaulki zituen J. M. Barandiaran buru zela. J. Thalamas *Gernika*ren bigarren zuzendaria kolaboratzaile sarria izan

zuen, hango ikastetxean zebilen-eta frantses irakasle, guduaren kariaz alde egin aurretik. Frantzian ikasia zen eta ez zitzaizkion arrotz hango pentsabideak (D. J. Mercier, J. Maritain, E. Mounier, É. Gilson...). Kontua da hango bileretan arretaz jarraitzen zutela Frantziako pertsonalismoa, eta korronte filosofiko-politiko horren argitalpenak taldean iruzkintzen zituztela. Inspirazio iturri zituzten *Esprit* eta *Ordre Nouveau* aldizkariak, eta irakurtzen bide zituzten G. Bernanos, Ch. Péguy, F. Mauriac… literaturagile kristau frantsesak.. Behinik behin, *Gernika* aldizkarira joz gero, ikusiko dugu aipatu egiten dituztela bai editorialetan bai artikuluetan.

Burubide bakezalea hartu zuten "etxetik bidalitakoek", alegia, gerrako galtzaileek. Iparragirreren *Gernikako Arbola* ereserkia gogoz beretakotu, eta "eman da zabal zazu" esakunea aldizkariaren goiburua izateko begiz jo zuten[9].

Aldizkarikoek paraleloa dute urte haietako Katalunian, zeren eta Joan Sales idazleak gerraostean *Incerta glòria* eleberria kaleratu zuen. Errepublikaren alde gudukatu zen PSUCeko taldeetan eta, denbora joan denbora etorri, bere burkideek (anarkistek...) egindako desmasiek eta izandako porrotak zer pentsatua eman zioten. Gogoeta humanista horren emaitzek hezurmamitzen dute bere kontakizun goraipatu arrakastatsua. Koadernoen tonua antzekoa da, barra-barra han-hemenka gai hori baitarabilte, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez[10].

**Publikazioaren testuingurua: 1945-53**

Lehen zenbakiak argia 1945ean ikusi zuen Donibane Lohitzunen; azkenak, Buenos Airesen 1953an.

Hasierako bultzagilea Rafael Picavea (1867-1946) izan zen. Diputatu erbesteratua zen. Aurreratu dezagun enpresa-gizona, kazetaria eta aunitzetan hautetsia izan zela. Bere *Gernika*ko artikuluak "Alcibar" luma-izenez sinatzen zituen. Irakurleen iritzia moldatzen zekienetakoa zen, influentziaduna. Bere bizitza politiko luzean zehar izan zituen interes elektoralen alde egiteko kazetak sortzeko burubidea hartu zuen. Horrela esplikatzen da Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkaria sortzea gerraurrean. *Euzko Deya* posible egin zuen gerraosteko



deserrian; Eusko Jaurlaritzaren Pariseko ahotsa zen agerkaria, naziek Hego Ameriketara lekuz aldarazi arte. R. Picaveak gorriak ikusi zituen Vichy-ren erregimenaren aldian. Edadetua izanik, eta Marseillan itsasoratzeko esperantzan zegoenean, atxilotu egin zuten. Frankistak eta Pétainen polizia elkar harturik errepublikanoen joan-etorriak oztopatzen saiatzen ziren. Ez zuten nahi erbesteratuek eskuarte ekonomikorik izaterik, erregimen kolpistaren kontra erabiliko zituzten beldurrez. Euskal errefuxiatuek Frantzia okupatua utzi nahi izaten zuten, etor zitekeena ezin aurreikusiz. Izan ere, Espainia berria eta Ardatz Hirukoitza lankidetzan ari ziren. Francok adiskidantza hori mantendu zuen faxistak Europan nagusi ziren bitartean, baina hoztu egingo zen beraien gainbeheraren lehen zantzuekin. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak azkar eta modu txarrean alde egin zuen Frantziatik, eta berarekin batera hainbat atzerriratuk.

Alemaniarrek, ostera, galtzera egin zuten. Iparraldea hustu zutenean aldizkariaren sortzailea Donibane Lohitzunen zegoen. Herriko "Hôtel de la Poste" izan zen ofizial nazien biltokia. "Kaskagorriek" alde egin eta hurrengo egunetan bertan bildu ziren "Instituto de Extensión Cultural Gernika-Gernika Laguntartea" izango zenaren partaideak. Talde hau ez da nahastu behar J. M. Barandiaranek Baionan 1947an abian jarri zuen "Gernika Bazkuna"-rekin. Institutuak hitzaldi sorta antolatu zuen Euskal Herria helburu zutela. Autonomia garaiko hizlari seinalatuak izan ziren partalier: J. Eizagirre *Ekaitzpean* (1948) eleberriaren egilea eta hautetsia, Alcibar (R. Picavea), T. Ernandorena, Orixe... Etxera itzultzea zerabilten gogoan. Aipa dezagun J. Eizagirreren hitzaldia *Gernika*ren 1945eko lehen zenbakiak jasoko zuena besteekin batera. Lege-gizon horren hizpidea izan zen zehaztea matxinatuak zigortzeko modua, eta sortutako kalteen ondorioz beraien lege-erantzukizunak. Ondasungabetutako erakunde errepublikanoei legedi konstituzionalaren arabera zor zitzaizkien kalte-ordainak konkretatzen ahalegindu zen.

Galtzaileek uste zuten A. Hitler eta B. Mussolini akabatuta, aliatuek hurrengo F. Franco eraitsiko zutela. Mundu gerrako irabazle demokratiko-liberalek, ordea, kolokan zegoen F. Franco boterean bermatu zuten. AEBren antikomunismoak eta W. Churchill-en Bre-

tainia Handiak zituen interes ekonomiko espainiarrak diktadorearen alde jarri zuten nazioarteko balantza. Madrileko gobernuak ere jakin zuen keinuak egiten aliatuen aldera: alemanen kontra Afrika inbaditzeko oztoporik ez zien jarri eta abar. AEBetako petrolioa hil ala bizikoa izan zen diktadurarentzat.

Horregatik maskalduko zen etxetik bidalitakoen itxaropena. Itxaropena, “zithal-lilia”, zioen J. Mirandek; eta esperantza txarrak “euskaldun zintzoen” kontra egitera bultzatu zuen *Gernika*ko kolaboratzaile mutiria:

“Loretan dago aspaldi huntan
gure begien ederr dalarik,
gure bihotzen gorotzak baitu
ongarriztatu et'ernarazi.
Ederr da... Haren hatsak, ordea,
zithala badu, herio-hasi,
ilhuntzen ditu gogo argiak,
ilhauntzen ditu argiak oro.
Hilherri-lili horren zithalak,
hezurr zaharren hautsak hazirik,
erhanik ditu aiten leinuak
eta zainhiltzen gaitu semeok...
Lili haur ene landetan ere
aspaldi huntan ezin hila dut,
nahiz Ipharrak astintzen duen,
nahiz kiskailtzen duen Hegoak...
Ai! goragotik ethorri — haizeek
ailezate io ene landetan
et'eiharraraz "itxaropena"
izena duen zithal-lili haur!”[12]



Eusko Jaurlaritza saiatu zen aliatuen onginahia eskuratzen, gudarien eta euskal espioitzaren bidez ahalegin militarrean lagunduta. Alperrik ibili ziren gudari erbesteratuak mundu gerran nazien kontra.

Lehen zenbaki hartan baziren Alcibarren bi artikulu. Batean, astindu egiten zuen Espainiako Elizaren jokabide makurra eta bikoitza. Gainerako idazleak hauek ziren: J. M. Barandiaran, J. Thalamas apaiza, J. Huici, G. Lacombe, Orixe eta I. Fagoaga.

R. Picaveak jakituria enpresariala jarri zuen Jaurlaritzaren mesedetan *Euzko Deya* sortu zedin. Gauza bera egin eta *Gernika* sortu zuen. Adinean aurrera egina, makalik zegoen, eta bigarren zenbakia ikusi gabe hilko zen.

Gatozen atzera eta 1939tik aurreko giro sozialera[12] perspektiba zabalagoa izan dezagun; Gerra Zibila amaitu berritan Frantzia okupatu gabe zegoen artean. Gobernu autonomoa Frantziara lekualdatu zen halabeharrez. Eskuin frantsesak eta katoliko frantsesek oro har, Francoren eraso militarra gurutzadatzat zeukaten. “Gorriak” ez zituzten ontzat hartzen hautestontzien zilegitasuna gorabehera. Gauzak horrela, J. A. Agirre Lehendakariaren ekipoa abegi egin zien erresumako iritzi publikoa bereganatu beharrean zegoen. Nola? Prentsaren bitartez (*Euzko Deya*), noski, baina baita ere LIAB (Ligue Internationale des Amis des Basques) delakoaren bitartez. Erakundeak Francoren kontrakoa zen jende ospetsua biltzen zuen: politikariak, intelektualak, idazleak... Jaurlaritzaren ildo demokristaua nabarmenarazten zuten katolikoak ziren; eskuin frantsesaren jarrera nagusiarekin ados ez zeudenak ziren: J. Maritain diplomatiko eta filosofoa, G. Bernanos eleberrigilea, F. Mauriac idazlea... Batzuk, hain zuzen, aztergai ditugun koadernoen inspirazio iturri ziren pentsalariak. Filosofikoki bazuten zer ikusia *pertsonalismoa* izeneko korronteak bultzatzen zuen ezkerreko katolizismoarekin[13]. J. A. Agirre ere pentsaera horri jarraitzen zitzaion[14].

Eta horiexek berak dira dira aldizkariaren talde eragileak dituen parametro ideologikoak. R. Picavea sortzailea filonazionalista zen eta afiliatu gabea; idazleak sarri giro jeltzalekoak ziren. I. López de

Mendizabal, A. M. Labaien eta J. Eizagirre kargudun ohiak ziren, A. Ibinagabeitia J. A. Agirreren kolaboratzailea. Ez denak, haatik, batzuk euren kontura ibilzaleak ziren errepublikaren ingurukoak izanagatik bizipenez: Orixe, E. Erkiaga, Basarri...

Berradiskidetzea, tolerantzia, bakea, gizabidea... iragartzen zituzten koaderno kolektibo hauek sektarismorik gabe. Bertoko idazle errepublikanoen bilgunea izan nahi zuten, deserriko Eusko Jaurlaritzak markatzen zuten politika erreala zeharo bestelakoa zen unean. EAJk, berbarako, eskabide abertzaleak askatasun osoz egin nahi zituen orain, behialako Errepublikak praktikatu zuen zentralismo zekenari men egin gabe. Legezkotasun estatal zentralaren oinordekoak noragabe eta makal zebiltzan zatiketaren ondorioz. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, goraldia zuen. J. A. Agirre Lehendakaria nazien ihesi Belgikan sasira pasatu zen, eta onik berragertzean bira triunfala egin zuen Ameriketatik; frankisten kezka-iturri bihurtu zen garaipen ospetsu hori. Jaurlaritzak espioi sarea osotu zuen estatubatuarren diruekin; besteak beste, A. Ibinagabeitia eta J. Galindez aldizkariko kolaboratzaileek horretan lan egin zuten. Gutxiasko larrutik ordaindu behar izan zituzten egiteko hauek: jipoiak, jazarpenak, heriotza, atzerriratzea....

Nazioartean zerbait zen une hartan Jaurlaritza, eta bakarka jokatu nahi izan zuen. Hego Ameriketako euskal diasporak orotariko laguntza (ekonomikoa eta politikoa) ematen zion gobernuari etxera bueltatu nahian, aliatuek garaitu eta ondorengo euforian. Ondorio gutxikoa zela guzti hau erakutsiko zuen berrogeita hamarreko hamarkadak luzaro gabe.

R. Picaveak *Gernika* sortzean, aurretik ibilbide politikoan jokatu bezala egin zuen. Hau da, nahi zuen Espainia barneko ituna euskaldunek egitea. Ez zuen hausturarik nahi. S. Aranari horrela esan zion, mende hasieran ezagutu zuenean. Fundatzailearen asmoari leial, *Gernika*ren irekitasunak azaltzen du publikazioaren loria eta baita azkena ere, ekonomikoki itota erbesteko indar "ofizialen" babesik gabe.

Eskuinak ez, baina Frantzia ofizialak esku zabaltasunez hartu zituen deserriratuak hasiera batean, Front Populaire ezkertiarrak agintzen baitzuen 1936tik. Alde egindakoek askatasunez joka zezaketen han. Baina agintariek beligerantziarik ez zuten nahi. II. Mundu Gerraren bezperan eta nazien mehatxupean, Frantzia ofiziala beldur zen atzeguardiako faxista espainiarren etsaigoa beretuko ote zuen. Hori dela eta, euskal erresistentzia eta kanporatuak kontrolatzen saiatu zen. Jaurlaritzaren ardurapeko errefuxiatuetan baziren 150.000 bat pertsona, eta kontzentrazio-esparruetara bideratu zituzten. J. Ibarnegarai Iparraldeko euskal agintari eskuindarrak eskurik izan omen zuen horretan. Iparraldeko hautetsi guztiek ez zuten horrela jokatu; adibidez, J. Ibarnegarairen laguna zen D. Dufau Senpereko auzapez (1919-35) eta *Gernika*ko kolaboratzaile euskaldunak Bilbo erori zenean 1937an iheslariak lagundu zituen "Comité Catholique d´Accueil et Répartition" izenekoan lan eginik.[15]



Orixe Landetako Gurs-eko eremuan egon zen eta argaldu ere egin omen zen. I. Fagoaga hirugarren zuzendariak ere hango estutasunak ezagutu zituen; Basarrik kostata lortu zuen hara ez bidaltzea. A. M. Labaienen eta I. López Mendizabalen erbesteko egoerek txarrera egin zuten.

Giroan zegoen mehatxua gauzatu egin zen alemaniarrek ziztu bizian eskuperatu baitzuten Frantzia. Parisetik Iparraldera 15 egunean heldu ziren. Jaurlaritzak Pariseko bulegoak bertan behera utzi behar izan zituen dokumentazio guztiarekin. J. M. Leizaola zegoen buru. Frankistei eman zieten naziek horko informazioa, eta barneko erresistentzia sare klandestinoak espetxeratzeak eta fusilamentuak jasan zituen ondorioz. Euzko Gudarostekoek osatzen zuten gehienbat sare hori, espetxetik atera ahala.

Frantziaren okupazioaren kariaz, kanporatuak Ingalaterrara eta Ameriketara abiatu ziren. Gobernu autonomoak bizirauten jakin zuen Londresen M. Irujoren gidaritzapean. Anabasa horrek buruzagitza jeltzalearen durduzadura ekarri zuen.

J. A. Agirreren itzalpean Jaurlaritza berrosatu egin zen Ameriketan, eta aldizkariaren sortze-giroa argitzean esan dugunez, jarrera soberanista izan zuen. T. Monzonek eta zenbait burukidek, Borboiko On Juan erregegaiarekin kontaktuak izan zituzten, balizko monarkia batean euskaldunen eskubideak berma zitzan.

Jarrera hau etekintsua izan ez-eta, pendulua antzo, jeltzaleak instituzio errepublikanoak lideratzen saiatu ziren ere.

Koadernoen eta indar politikoen arteko harremana ez da alegiazkoa. A. Ibinagabeitia aldizkariko kolaboratzailea Lehendakariaren hurrekoa izan zen Parisen, eta agintariak hitzaldi batean euskaraz hitz erdirik egin ez zuela-eta, publikotik bertatik salatu zuen bozgoraz. *Gernika* eta ordezkaritza ofiziala ez zebiltzan aparte hasiera batean, kontuan izanda, herri txikia izan, eta gudak eta erbesteko esperientziak euskaldunak berdindu zituela. Horren erakusgarri argazki bat. Hemen dugu 1945ean Instituto Vasco de Extensión cultural Gernika-k gerra bietan hildakoen omenez egin zuen lore-eskaintza hiria bonbardatzearen zortzigarren urteurrenean. Bazkuneko ordezkariekin batera agertzen dira Euzkadiko Gobernukideak eta militar frantsesak. Gerora, aldizkariak galdu egingo zuen arduradun instituzionalek ematen zioten abaroa.


San Juan de Luz.—Ante el monumento a los muertos de la guerra. El Instituto Vasco de Extensión Cultural «Gernika» ofreció el homenaje de unas flores en conmemoración del octavo aniversario de la destrucción de Gernika por los aviadores alemanes al servicio del fascismo español. En la foto se vé al Consejero del Gobierno de Euzkadi. D. Eliodoro de la Torre, que depositó la corona de flores. A su derecha: el Comandante de la Zona Fronteriza, M. Aignerein; el señor Gortazar, Delegado Vasco en Bayona; y el señor Ernandorena, en el momento de hacer uso de la palabra. A la izquierda del señor de la Torre: el Doctor Oyarzabal, Vicepresidente del Instituto Vasco de Extensión Cultural; el valeroso Jefe de los Voluntarios Vascos, Señor Ordoqui, que tanto se han distinguido en la última acción de Pointe de Grave contra los alemanes; el alcalde de la Villa y, junto a él, parte de un grupo de los voluntarios vascos heridos en dicha acción.

— 38 —

Honekin lotuta dator aldizkaria fundatzeko egunetan Gernika lagunarteak jasandako erasoa. 1948eko editorialean gogoratzen da anekdota esanguratsu hori[16], eta gertakariak hona aldatuko ditugu merezi izan zuten balorazioarekin. Bigarren zenbakian (1948), bolo-bolo zebilen totalitarismoaren kontua jorratzen dute; *Esprit* aldizkariak esandakoa berritzen dute. Hitler eta Napoleon bezalakoak nola onartzen dituen gizarteak ulertu nahi dute. F. Nietzscheren eragina erruduntzat daukate. Euskaldunetan ere agertu zen joera makur hori. 1945 urtean, bonbardaketaren 8. urteurreneko ekitaldian, "los representantes de un cierto racismo extremista lanzaron ya su desafío a la institución". Eta geroago: "la oposición de los extremistas totalitarios no cejó en ningún momento". Horren inguruan ez deritzote egoki salaketa xehetasunez azaltzeari, eta dagokiokeen une eta lekuan egitekoa izango dela diote. Goiari tinko eusteko asmoa erakutsi, eta euren hautua adierazten dute:

> "Que lo queramos o no, el dilema se halla planteado de una manera tajante: o darwinismo social ó humanismo universal; y en nuestro caso: o vasquismo racial ó vasquismo humano y universal"

1945ean mundu gerra bukatu da. Zer esan arrazismoaren arazo honetaz? Kontuan har dezagun, Frantzian, ez bretoiek bakarrik, zenbait euskaldunek ere begikotasunez hartu zituztela inbaditzaileak. *Eskualduna* (1887-1944) euskarazko agerkari beteranoa itxi egin zuten liberazioan inbaditzaileen aldeko apustua egiteagatik. Bretoi abertzaleek ere euren borrokan atzerapauso itzela egin zuten "kaskagorriei" sostengua eman, eta haiengan itxaropena jartzeagatik. Francok ez al zuen ezarri "El día de la Raza"? Apustu arrazista ez zen ohiz kanpokoa Europan XX.eko lehen erdian, J. Miranderen literatura aztertzean azalduko dugunez. Ez ote zegoen *Euzko-Enda* izeneko publikazioa? Pétain marexala, Vichy-ko erregimenaren lider nagusia, I. Mundu Gerrako heroi nazional frantsesa zen, ez edonor; halarik ere, naziei lagundu zien beraien politika antisemitan.

EAJren barruan ez zegoen Hitlerren aldeko talde antolaturik[17]. Alabaina, bederazka, alderdikide batzuk naziekin solastatu egin ziren helburu politikoekin. Eugene Goienetxe historialariak bakarka goi agintari batekin hitz egin omen zuen. Jeltzaleek gogoan hartu zuten kaskagorrien balizko garaipenaren ondorioz Euskal Herrian sor zitekeen status quo berria, eta horri nola etekina atera

aritu ziren. Euskadi Buru Batzarreko frogagiria dugu, non hitzez hitz datorren Führer-aren gaitasun politikoaren baitan fedea zutela, eta euskal arazoa konpontze-bidean jar zezakeela:

> "Porque el problema vasco está intimamente ligado al problema racial alemán y por lo tanto es lógico y natural que el Führer lo acoja y resuelva con simpatía"[18]

1930eko hamarkadan naziek eta faxistek nazioaren ikusmolde biologikoa zabaldu zuten Europan. EAJk agindua eman zuen jarraitzaile orok eten zitzan kaskagorriekiko edozein lotura, nazioarteko aliatuen aurrean itxura zaindu nahiz eta "denon onuraren" izenean. Hala ere, jarrera esentzialistan tematutako euskal abertzaleak baziren.

Mundu Gerraren hondarrean aliatuek bentzutu zutenean, Espainian demokrazia berrezarriko bazen, indar garaile berrien aurrean oposizio antifrankista batuta agertu behar zen, eta jeltzaleek, bloke nazionalaren kontsigna baztertu, eta espainiarrekin bat egin zuten nolabaiteko konpromisoen bila. Hainbat ahaleginen ondoren, eta luzaro iguriki eta gero, esperantzak gorenean zituzten.

Beste biderik ere hartu zen. EAJ, Jaurlaritzako partidu liderra, mundu mailako eragileek eskain zezaketen edozein aukerari lotzen zitzaion. 1946an Franco eraisteko apustu erregezalea errepublikazalea baino indartsuagoa zen. Izan ere, W. Churchill Britainia Handiko lehen ministroak orduantxe erabili zuen *Burdinazko Hesia*ren metafora aliatuen barneko urruntze historikoa irudikatzeko hitzaldi sonatu batean; II. Mundu Gerrako irabazleen artean elkar ezin ulertua sortu zen. Dena zuten poxelu: batek arma batzuk saldu zituela hemen, besteak nonbaiteko erregimen bat ezarri zuela han, eta horrelakoak. Munduko eragin-eremuak bitan banatu ziren: SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)ren agintepekoak, eta AEBren menpekoak. Testuinguru honetan, Mendebaldeko potentziek hobeto zekusaten monarkia Espainian errepublika baino. Errepublika komunisten eskuetan eror zitekeen errazago, sobietarrak internazional komunistaren bitartez eragina zabaltzeko



ahaleginetan ari ziren-eta. AEBek Britainia Handiaren inperio zaharra beretu zuten komertzialki.

Penduluaren beste oszilazio batean, aldiz, EAJk nahiago izan zuen Errepublikak eskaintzen zuen bermea, zeinarekin behinik behin 36ko estatutuak iraungo baitzuen, eta hortik gora. Erregezaleekin dena zegoen negoziatzeke, eta burujabetza-eskakizunen aurrean epel ikusten zituzten. Gauzak horrela, 1945etik aurrera jeltzaleak Errepublikaren alde jarri ziren. Ez erabat, esan dugun bezala, tranbia guztietara igotzen saiatu baitziren. Baina tranbia erregezalea ere ez zen epe laburrean helmugara helduko. Bai epe luzera, gaur egun ikusten dugunez. Izan ere, erregimen frankistak "Ley de Sucesión" (1947) delakoren bitartez etorkizun monarkikoa aurreikusten zuen diktadurari jarraipena emateko. 1945eko "Fuero de los Españoles" legea Francoren beste keinu bat izan zen aliatuak baretzeko eta nazioarteko onespena lortzeko.

Koreako Gerran (1950-53) mundu mailako potentziek talka egin zuten[19]. *Gernika*ko editorialetan mehatxu atomikoak sortzen zuen larritasuna bizi-bizi agertzen da. Beren alternatiba humanista berresteko balio die. Mundua bi bloketan banatzean, AEBek bloke komunistaren aurrez aurre jarri ziren. Bestalde, 1945-51 epean EAJk barne antolakuntza sendotu zuen eta bi gerrek eragindako erbestealdi bikoitzak sortutako noragabea gainditu egin zuen.

1950ean giro ezkorra zabaltzen ari zen euskal auziak zuen atarramentu txarra medio. EAJko afiliatu etsituek diru-ekarpenak murriztu zituzten. Alderdiak antolakuntza murriztu egin behar izan zuen. AEBk euskal auzian zuen interes politikoa eta, ondorioz, ekarpen ekonomikoa urritu egin ziren. Euskal espioi sarearen eraginkortasuna eta beharra zalantzan jartzen zuten amerikarrek. Baliabide eskasia honek ez al zuen eragin neurri batean *Gernika*rena bezalako ekimen bihurriari edozein diru-laguntza ukatzea? Eskuetatik eskapatzen zitzaien, eta ekonomikoki ito zedin utzi zuten 1953an. Hipotesia bat da, baina Jaurlaritzak sailen kopurua gutxitu zuen eta errefuxiatuentzako dirua ere bai. Zerbait egon zen zeren eta Gernika lagunartekoek funts gehiago espero zuten irizkideengandik. A. Ibinagabeitiak[20] deitoratzen du 1953ean "euskara bizkortzeko" eta "Euskalerriaren izen goragarria

aintzatzeko" plataforma zabal hori suntsitzea. Aldizkariak daraman lerro humanistagatik eskandalizatuta daude batzuk. A. Ibinagabeitiak *Sapere aude* goiburua berresten du:

> "Lurbira ontan ez dago ikut-ezinik; giza-burmuinak landara egotzi teori garaienak ere, azta, eztabaikatu eta iñarrostekoak dira. Beraz... ez zaiteztela, buru-ertsiok, "Gernika"k egin digun lan ederraz eskandalizatu"

A Ibinagabeitiak gogoan izango zituen 1953ko *Gernika*ren azken zenbakietan J. Mirandek publikatu zituen poema erotiko eta artikulu politiko antikonbentzionalak hori idatzi zuenean. Poetaren lagun mina zen, eta beraren bidea aberasgarria iruditzen zitzaion euskal literaturarentzat, beste herrialdekoekin homologatu egiten zuelako sentimenduak eta barneko bulkoak askatasunez adieraziz.

Aldizkaria azkentzeak, dirudienez, aurretik izan zituen kontrako gaizki-errate bideratuak:

> "Aipatu gizontxoen propaganda zitala dela bide askatasun ederrenean erne anaitasun ori ondatu nahi izan digute, eta beren xedea iristeko gure aldizkariaren eriotza ere bide makurrez iritxi nai izan dute. Gure zuzendari maiteak zer esanik aski izango ditu, nunbait, gai oni buruz"

A. Ibinagabeitiak jarraian argi dio aldizkarikoen sokakoak zirela boikotatzaileak:

> "Itzaltze onek beste Gernika dakarkit gomutara. Ua gure etsaiek erre eta kiskali ziguten. Deitoragarria benetan, ala ere arerioen eskuz bete zen erailketa ura. Gure "Gernika" onen erioa are deitoragarriagoa deritzat, senide tarteko erailketa bat izaki. Etsaiek arrizko Gernika suntzi ziguten, eta anaiek gogozko "Gernika" au suntzi nahi digute. Ez ote negargarria? Gure artean sortzen diran aldizkariekiko gorrotoak erretzen ez gaituenean, axolagabekeri ustelenak beintzat pitzatzen gaitu"



R. Picavearen ondorengoak politika sektarioa bide inor ez baztertzen saiatu ziren irmo; elkartzen zituena adiskidetasuna zen, ez diziplina politiko alderdikoia. Behin eta berriz baieztatzen duten jarrera da. Beraz, alderdiaren eta humanista hauen arteko harremana ez zen goxoa beti. Dirua baldintzak jartzeko moduan zegoen, eta aldizkaria ito egin zen. Nabarmena zen aldizkarikoek zerbait gehiago espero zutela, berea ekimen pribatu hutsa ez zelakoan.

Konpara ditzagun *Gernika* eta *Alderdi* publikazioak. *Alderdi* 1947an sortu zen. Egoera politikoa eta alderdiaren barne-bizitza iruzkintzen zituen. Europazaletasunaz eta alderdi demokristauekin izan beharreko harremanez jarduten zen. *Gernika* arlo kulturalean zebilen erosoago: ideien munduan eta ez berehalako praktikotasun zuzenari lotua.

*Euzko Deya* da orduko beste agerkari bat, Eusko Jaurlaritzaren bozeramalea[21].

Garai-giroa borobiltzeko esan dezagun, lehen frankismoan eta munduan bloke-politika nagusitu orduko, diktaduraren aurkako zenbait iniziatiba bultzatu zirela barnetik. 1947ko greba dugu gogoangarrienetakoa, zeinetan Bizkaian bakarrik 60.000 langilek hartu zuten parte. Grebak izan ziren 1951n ere, apirilean eta maiatzean.

**Testuinguru kulturala**

Gainbegiratu bat bota diezaiogun 1940-50eko hamarkadetako aldizkarigintzari, ikus dezagun orduko produkzioaren nolakotasuna.

- *Eusko Jakintza* Saran argitaratu zen 1947tik 1957ra bitartean, Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapean. J. Haristchelhar irakasleak azpimarratu zuen duen munta, anitz hizkuntzalariren ekarpenak jaso zituelako.
- *Euzko-Gogoa* 1950etik aurrera argitaratu zen, eta Jokin Zaitegi zuen zuzendari. Lehenik Guatemalan eta bigarren aldian Biarritzen argitaratu zen. Euskara unibertsitate-mailara jaso nahi izan zuen. Horregatik erabiltzen zuen euskara kultista zenbaitetan

ulergaitza, J. Zaitegi beraren itzulpenetan suma daitekeenez. Egitasmo horretan eta euren heziketa klasizistatik eta humanistatik espero zitekeenez, eragileek hainbat autore greko-latindar itzuli zituzten euskarara. Platonen lanak itzuli zituen J. Zaitegik etorkizuneko euskal unibertsitateak beharko zituen testuak prestatzeko asmoz.

- *Anayak. Correspondance bi-mensuelle des Prêtres basques en exil* Parisen argitaratu zen 1939an.
Elkartu ditugu antzekotasun zenbait aurkitu dizkiegulako. Taldeak heterogeneoak dira, noski. Gure apalean, testuetatik abiatzearekin batean, autore bakoitzaren zenbait ezaugarri jaso ditugu. J. Zaitegirengandik (1950) mailegatu ditugu berak "Aitzolen belaunaldia" marrazteko erabili zituen J. Petersen-en (1984) ezaugarriak: data biografikoak, zerabiltzan ezizenak, joera eta zaletasun literarioak, non plazaratu zituen lanak, hizkuntza joerak, testuingurua, *Gernika*ko idazkien hizkuntza, eta lehenkien zein errekonozimenduaren datak; ahalik eta datu gehien inguratzen saiatu gara[69].

Nonbait irakurri dugunez, zibilizazioaren historia izan ohi dira kritika literarioaren saio historikoak eta, ildo horretatik, ez da kasualitatea taldekatzeok kronologia linealarekin bat etortzea. Termi-

nologia aldetik, *belaunaldiak*, *ekipoak* edo *taldeak* ziren ez dugu hemen ebatziko. Lerro nagusi batzuk marrazten asmatu badugu, ahalegin guztiak ez dira alferrekoak izan. Horrela, jaiotze-datei so eginda:

A taldea XIX. mendearen bukaeran heltzen da heldutasunera,

B taldea XX. mendearen lehen herenaren bukaeran,

C taldea XX. mendearen bigarren herenaren bukaeran.

Historiak baldintzatzen al du literatura? Badirudi edonola ere edozein gertakari historiko garrantzitsuk idazleak elkartzeko bertutea izan duela. Gerra Zibila izan liteke bat. Guztiarekin ere, hemengo laginek denbora tarte mugatua hartzen dute, baina zantzu hauek balio dezakete une batean egin zena ikusteko. Litekeena da idazle hauen jokabideak gorabeherak izatea aurretik ala ondotik. F. Krutwigek, adibidez, poesia baztertu egingo zuen urte gutxi geroago eta betiko.

Hortaz, banaka aztertuko ditugunak[70] euskarazko idazle oparoenak izango dira, bost ekarpen inguru egin dituztenak, alegia. Kronologiari jarraiki aztertuko ditugu idazleak, eta lanak, plazaratu ziren hurrenkeran.

Kritika tematikoa erabiliko dugu[71]. Kritika mota hau poesiarako da baliagarria batez ere, eta esperimentazio formalagatik zentzua galtzea ez da hemengo kasua.

Hurbilketa honetan zentzu zabalean hartuko ditugu adierazpen literarioak, eta Modernitateak literaturan eragin zituen aldaketa eta berrikuntzen ikuspegitik ikusmiratuko ditugu. Aztertuko dugu O. Paz-ek (1974) jarri zituen parametroak zein neurritan aurkitzen diren koadernoetako literaturan. Horien berri emango dugu segidan.

*Gernika*k bere burua "humanista" gisa definitzen du eta pedagogia sozial bat egin nahi du: Euskal Herria modernizatu nahi du.

Erdi Arotik hona hiru mugarri egon dira Europako historia kulturalean. Berpizkundeko humanismo italiarra izan zen lehena. Aldizkariak XVI.eko euskal figura humanistak errebindikatzen ditu Euskal Herrian bizi izan baitzituzten berrikuntza horiek: Donibaneko Huarte, Azpilkuetako Martin, Zumarragako Juan, Vitoriako Frantzisko, Frantzisko Xabier Deuna eta Karrantzako Miranda. Hurrengo mugarria XVIII.eko Ilustrazio frantsesa izan zen. *Gernika*k Azkoitiko Zalduntxoen planteamenduak bere egiten ditu. Hirugarren mugarria erromantizismo alemaniarra eta ingelesa izan zen (1789-1830): Iparragirreren *Gernikako Arbola* eresia proklamatzen dute erredakzio-taldekoek XIX. mendean.



1802an amaitu eta 1881ean publikatutako J. A. Mogelen *Peru Abarka* izanik ere lehen nobela modernoa, ikusmolde honek literatura era nabarmenean permeatu zezan arte hainbat hamarkada, industrializazioa eta abarrak beharko ziren. Horregatik neurri hori nola bete zen 1950 inguruan aztertuko dugu hemen.

Mendebaldean literaturak eta gizarteak nolako harremanak izan zituzten? O. Paz bide-erakusle hartuta zertzelada nagusiak ekarriko ditugu.

Lan honetan Modernitate berantiarrari lotuko gatzaizkio, hau da, erromantizismoa hasi eta gerokoari. Erromantizismoak Ilustrazioaren kontra egin zuen. Poeta historiaren aurkakoa izango da, eta Modernitatearen aurkakoa; ukatu egingo ditu arrazoi kritikoa, liberalismoa, positibismoa eta marxismoa. Mugimendu iraultzaileek (Frantziakoak, Errusiakoak) erromantizismoaren sostengua izango dute lehen momentuan, baina gero beraren arbuioa jasoko dute. Industria Iraultzak ere ondorio latzak izan zituen langileentzat. Industria iraultza mundu osoan zabalduko zen, eurozentrismo nabarmenez jokatu baitzuten mendebaldarrek nonahi. Aurrerakuntza ez da beti lineala izan, eta iraultza horrek kalteak ere sortu ditu ez bakarrik Europan, ezarri den hainbat lekutan ere bai (O. Pazek Mexico bere herrialdearen kasua aipatzen du).

Poesia modernoak beste tradizio bat jarri du arrazionalismoaren ordez: neoplatonismoa, hermetismoa eta okultismoa hobetsi ditu. Bazterreko filosofia horiek *analogia* erabiltzen dute unibertsoa

azaltzeko: hizkuntza unibertsoaren bikoizketa da. Analogiak arrazionalismoaren eta progresismoaren kontra egingo du. Sinbolistek (Lizardik, Lauaxetak) hortik jo zuten. *Urte giroak ene begietan* lanean, Lizardi naturaz baino honago edo harago den zerbaitez mintzo da: gizakiaren ibilbide biografikoaz.

Poesia modernoaren bigarren ezaugarri nagusia *ironia* da: berak diosku kristautasunak bermatzen zuen ordena kraskatu egin dela. J. Mirande da joera honetakoa.

Eten honen aurretik, erdiguneko tradizioa klasikotasun grekoerromatar neurritsua (*sophrosine*) zen. Erromantizismotik aurrera *kementsua dena* ("lo bizarro" O. Pazen hitzetan) izango da tradizioaren erdigunea.

Modernoa izateak tradizioa ukatzea dakar. Tradizioa da belaunaldiz belaunaldi transmititzea berriak, elezaharrak, istorioak, sineskerak, ohiturak, forma literario eta artistikoak, ideiak, estiloak...

Ukazioaren ondorioz zerbait berria aldarrikatzen da. Hala ere, zaharkina (A. Xahoren sorrera-mitoak, kasu) Modernitatean sar daiteke, baldin eta tradizioa baztertu eta beste berri bat proposatzen badu.

Beste ezaugarri nagusi bat pasio kritikoa izango da. Horren harira, behin betikorik ez, eta etengabeko aldaketa etorriko da: oraina nagusitu egingo zaie iraganari eta etorkizunari. Gaztetasunaren gurtza etorriko da, nahiz eta superstizioaren tankera izan sineskera honek. Aldakuntza etengabeak dakar dena gero eta arinago zahartzea eta historia azeleratzea. Iragana ez da jadanik gure zibilizazioaren funtsa. Kontzientzia modernoa historikoa da.

Denboraren kontzepzio berria XII. mendeko kristau batena ez bezalakoa da. Modernitateak betierekotasuna kritikatzen du. *Gernika*ko zenbait idazle fededun (J. Aldabe eta I. Larramendi) mundu aldakaitzean bizi dira XX.aren erdian, beren bertsoen azterketan azalduko duguna. Denbora iragangaitzaren arketipo horrek, aldaketak edo heriotzak ekar litzaketen kontraesanetatiko babesa dakarkio gizarteari. Historiaren gaineko garaipena zen.



Ironiak, ordea, diosku Jainkoa hil dela, hau da, errebelazioak nagusigoa galdu duela, eta arrazoiak hartu dituela beraren eskumenak. Arrazoiaren ezaugarriak hauek ditugu: kritika, aldaketa, zalantza eta sekuentziazioa, besteak beste. Aurrerantzean perfekzioa ez da haraindian -zeruan- lortuko, hemen baizik eta etorkizunean. Perfekzioa lortzen da lurreko ekintza historikoaren bidez, ez Jainkoarekin bat eginez.

Beste berrikuntza zenbait ere badatoz. Gizaki bakoitzaren errealitatearen ordez, espeziearen errealitate ideala jarri zuten. Izan ere, lege zaharrean gizakiak salbamen indibiduala eskuratzen zuen erlijioaren arauen barnean; orain aldiz gizateriak osotasunean lortuko du aurrerakuntza.

Bestalde, kontenplazioa ez da izango balio gailena, eta bai munduko ekintza. Lanak, aurrerakuntzak eta politikak hartuko dute hurrenez hurren penitentziaren, graziaren eta erlijioaren lekua.

Etorkizuna betegintzarrearen leku hautatua izan, eta gainpreziatu egingo da. Etorkizunak babestuko gaitu Iraganeko izugarrikerietatik eta Oraineko gertakarietatik.

Literaturak gizarte burgesa eta beraren balioak kritikatuko ditu. F. Krutwigek birgauza egingo du bere artikuluetan mundu gerren, industrialismoaren eta Modernitatearen beste akats batzuk aintzat hartzen dituenean.

Erromantizismoak, azkenik, sentiberatasuna eta pasioa berreskuratuko ditu kristautasunak baztertu zituen naturaz gaindiko genio eta izakiekin batera.

O. Pazen teorian berebiziko garrantzia dute bi kontzeptuk: analogiarena eta ironiarena.

Analogia. Analogia da poesia modernoaren benetako erlijioa. Euskal sinbolistek, adibidez, mundu hau beste baten irudikotzat zeukaten. Lizardik izadiko elementuak beste zerbaiten sinbolo egiten ditu: Pariseko txolarrea lekuz kanpo dagoen atzerritarraren adierazpidea da; tximeletak maitatu gabe zahartu diren pertsonen

idurikoak dira. Lauaxetak hemengo munduan harago dagoen beste baten oihartzuna entzuten du. Azken finean idealismoa dago oinarrian. Mitologia kristaua desintegratzean, poetek mitologia pertsonalak sortu dituzte hango eta hemengo filosofien eta erlijioen adabakiekin. Analogian funtsatzen den sinismena izakien eta munduen arteko korrespondentzian oinarritzen da. Poesia analogia gauzatzen den lekua da. Analogiari esker uler dezakegu mundua. Hizkera analogikoa estetikoa da, esaterako J. Miranderena. Hizkera laua, ostera, G. Arestirena edo B. Atxagarena izan daiteke. Jon Kortazar kritikariari zor dizkiogu O. Pazen eta euskal poesiaren arteko hurbilketa hau.

Ironia. Analogiaren barnean dago ironia, beti O. Pazi jarraiki. Hau da, munduaren ulerkortasuna eta erregulartasuna kontrastean dago Jainkoaren heriotzak dakarren ziurgabetasunarekin. Ironiak hilkortasuna du parekoa. Analogiak denbora ziklikoa adierazten du. Ironia denbora lineal errepikaezin eta jarraikakoa da. Ironia sortzen da Jainkorik ez dagoenean, eta beste munduak hemengoa bermatzen ez duenean. Aurrerapenaren ataria da, zeren eta perfekzioa hementxe bertako etorkizunean itxarongo du gizakiak. Ironia erakusten du J. Mirandek bere poemetan. B. Atxagak ere ikusmira bera du. Ez aldiz G. Arestik, utopian sinesten baitu.

Aztertuko dugu bi ezaugarri horiek zein neurritan aurkitzen diren *Gernika*ko idazlanetan. Horrela kokatu ahal izango dugu Modernitateak nolako etenak eta aurrerabideak izan zituen literaturaren historiako epe horretan; behinik behin aztertu dugun laginean. Gai hauek konplexuak dira eta osotasunean aipatutako O. Pazen iturrian aurki ditzake irakurleak.

Honaino, labur bada ere, agerkariko literatura estudiatzeko erabili dugun markoaren deskribapena. Irakurleak ulertuko du ezin ditugula hemen Modernitatearen kontzeptu konplexu honen inguruabar guztiak xehe-xehe azaldu. Beharrezkoa zen, aldiz, azalpen bat.

Goazen beraz *Gernika*ko idazle garrantzitsuenak aztertzera banan-banan.



### Lore Jokoen ondorengoak[72]

Sail honetan aurkeztuko ditugu Iparraldeko D. Dufau saiogilea eta Hegoaldeko I. Larramendi eta J. Aldabe bertsolariak. Lore Jokoak alde bietan izan ziren. Hegoaldeko bertsolarietan naturaren eta gizartearen ikuspegi neoklasikoa dago, eta D. Dufauk Iparraldean kezka erromantikoz oratua ikusten du geroa. Aldatzen hasiko den gizarte tradizionalaren lekukoak dira.

## J. Aldabe

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak *Gernika*z gain | Idazkien hizkuntza: |
|---|---|---|
| **Aldabe´tar Joakin (1893-1971)** | *Olerti, Euzko Gogoa* | 6 euskaraz |

*4. taula. J. Aldabe idazlearen datu eta ezaugarriak*

Sei bertso sorta plazaratu zizkion *Gernika*k.

## J. Aldaberen lanak

### “Jaunaren aserrea” (1949)

Natura Jainkoak gobernatzen du, fenomeno guztien gaineko eskua baitu. Ikuspegi teozentriko honek kristau ohituretan zuzenak ez diren herriak kalamidadeen bitartez zigortzen ditu; gerra izan berrien testuinguruan ulertu beharreko apokalipsiaren ikuskizun berritua. Gizartea aldatzeko ahalegin arrazionalik ez da planteatzen.

Mundua mundu denetik balio izan duen esplikazio hau historiatik erabat kanpora dago. Aurrerakuntzarik ez dago, eta eskema apokaliptiko bera errepikatu egiten da.

### "Arrats zorionekua" (1950)

Naturak gizakia poztu ere egiten du: arratsaldeko isiltasuna, lasaitasuna, errekaren murmurioa, ohiko natura (huntz-orria, saguzaharra, txorikumeak habian, umeen loa), eta egunez lan egin eta gero, biharamunean eguzkiak ekarriko duen poza.

Naturaren erdiko marko kostunbrista. Oreka neoklasikoa da, ez kezkarik ez barne-zimikorik, denak eusten dio denari, eta ez dago pitzadurarik errealitate horretan.

### "Beti aurrera" (1951)

Urte berri egunean munduari uko egitera gonbidatzen du irakurlea. Aberastasunak baztertuta, beti iraungo duten haziak ereitera bultzatzen gaitu.

Perfekzioa "goi mall ontasunian" dago: kontenplazio horrek zorionera garamazke.

Errealitate jainkotiarrak kontenplatzea munduko ekintza eraginkorraren aurretik doa.

### "Uda berriya" (1950)

Esker ona erakusten dio Jainkoari bertsolariak udaberria bidali duelako lurrera. Naturarena da aldaketa bakarra, eta duen ziklikotasunak egonkortasuna damaio gizadiari. Egonkortasun horrek erakuskariak ditu: otsoari diotso bertsolariak ardi otzanak ez beldurtzeko; erleak lorez lore; txoriak kantari; sagarrondoak loretan; kukua eta kilkerra isildu gabe, eta goldea soroetan ereitea prestatzen.

> **"Ta, zuk, Jaun on andik aurrera**
> ongi dakizu zer egiñ.
> Nai dezun eran jostatzen zera
> aiziakiñ eta euriakiñ.
> Bedeinka itzazu gure lur aldek
> zure esku ongilliakin"



Larridurarik ez behin betikoa den mekanismo honetan. Gizartea apenas irudikatzen du Gipuzkoako Orion eta Frankoaren bakearen azpian bizi den J. Aldabek. Egoera politikoak intimismorako eta aszetismorako aukera ematen zuen; Espainiako literaturan ere bide horiek jorratu zituzten orduko idazleek.

### "Negua jun da" (1951)

Aurrekoaren parekoa da. Natura ziklikoa erakusten duen bertso sorta bukolikoa da.

### "Aita!" (1951)

Etxeko barne bizitza enmarkatzen da bertso-sail honetan. Arrantzaleak gizon bezala bere legeak bertan beteko ditu itsasotik etorrita. Amaren ahots narratzaileak Ama Birjinari eskaintzen dio sendi guztia.

## Joakin Aldabe. Laburbilduz

Bertsolariak lehen frankismoaren barnetik idazten du. Hemen ere gizarterik ez da ageri, umeak eta mutil koskorrak izan ezik. Salbuespena dira langileak betiere beharrari lotuta: nekazaria eta arrantzalea. Lehen sektorean gaude. Gizakiak bizimodua egiteko dituen barrutiak lana eta intimitate pribatua dira. Kanpoko mundua, aldiz, natura da; natura pozgarria ala haserrekorra izan daiteke.

Solaskideak dira Jainkoa eta Amatxo Andra Maria. Sekularizazioa urrun dago. Mundua ez doa aurrera, betikoan dirau. Ez dago historiarik, ezta etorkizunerako asmorik ere.

*Gernika* aldizkariaz

## Dominique Dufau

| Ezaugarriak/ Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Zaletasun literarioak eta literaturaren kontzeptu komunak. | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak Gernikaz gain | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: |
|---|---|---|---|---|---|
| **Dominique Dufau (1880-1956)** | Notarioa. | Beste aldizkari batzuetan agertutako artikuluen gai adierazgarriak ditu hauek: Senpereko anekdotak; pilotariak; Eguberriak; Angelus, kantu, dantza eta irrintzinak; etxeko arnoa, gapelua (le béret); euskaldun zirtoa (humour basque). | *Gure Herria, Eusko Jakintza, Agur.* | Eskualtzaleen Biltzarreko diruzaina. | 8 euskaraz; 2 frantsesez. |

*5. taula. D. Dufau idazlearen datu eta ezaugarriak*



## D. Dufauren lana

### "La basqauise et les traditions" (1949)

Idazlearen frantsesezko artikulu hau aintzat hartzen dugu zerikusirik baduelakoan gainerako beraren euskarazko produkzioarekin. Bertan, euskaldun prototipikoaren tasunak inguratzeko orduko literatura ustiatzen du : bertso herrikoiak, P. Lhanderen *Mirentxu*...

Emakumeak semeari irakasten dio tradizioari eusten (kantak, dantza onestak, hizkuntza, bertsoak, irrintzia, otoitza...). Euskaldunak Euskadirentzat (sic) eta Euskadi Jainkoarentzat.

Harrotasunik erakusten du:

> "Le Basque n´ôte son béret que devant Dieu à qui va son adoration eta sa gratitude de l´avoir fait naître au Pays Basque".[73]

Irudi heroiko hau A. Xahok erein zuen, esanez nazio hau Europako zaharrenetarikoa dela, bere hizkuntza logikoenetarikoa; testuinguru honetan gizarteak euskaldun banakoari askatasuna goren graduan ematen dio. Gainera, nazioarteko ikerlarien arreta merezi izan du euskalduna den orok. Ikuspegi mitiko hori literatura mota batean arrunta bihurtu zen.

Euskal festek, Lore Jokoek, irudi hau estetikaren mailara jaso zuten[74], eta lehen aldi batean begitarte alaia jartzen zioten nortasun honi. J. M. Hiribarren, J. B. Elissanburu, J. Barbier eta P. Lhande dira irudi hori zabaldu duten beste idazle batzuk.

Tradizioa, P. Bidarten arabera, frantsesez zetorren modernizazioaren kontra altxatutako murraila zen. Indar kontserbatzaileek Eliza jartzen zuten jendearen eta beraren hizkuntzaren tutore[75].

Arroztea zen D. Dufauren ustez euskaldunek irauteko zuten arriskua. Izan ere, tentaldiek eta ohitura berriek mehatxu egiten zuten.

Egileak berak agertzen du bere burua A. Xahoren zorduntzat, "le sang d' Aitor" aipatzen baitu euskaldunen laudorioak egiterakoan artikulu honetan.

**"Ilhunduratik argira" (1949)**

Denbora ez zen igarotzen Euskal Herrian:

> "Eskual Herria Munduaren bazter bat da, adinik gabeko bazter bat, -nork dezake erran noiztik den Euskaldunaren lurra?-, bazter pullitenetarik bat, bainan ilhunduraren lainoek, bertze tokiak bezala, itzaltzen ari dutena"[7].

Arestiko nortasun epiko alai hark lekua utziko zion euskaldun zintzoaren irudi tristeari. Modernitatea laikoa da; indar kontserbatzaileek eta Elizak iraunarazi nahi izan duten mundua atzerantz egiten ari da. Hegoaldeko gerra ere, herriari egindako eraso deitoragarria izan zen D. Dufauren sentiberatasunerako. Azken puntu honi dagokionean, *Eskualduna* aldizkarikoak ez zituen irizkide Eskualtzaleen Biltzarreko D. Dufau notarioak. Izan ere kazeta horretako kontserbatzaileak Frankoren "soldadu" kristauen alde jarri ziren. Soldadu hitzak berarekin zekarren irakurleen gogora I. Mundu Gerrako soldadu frantsesen ohorea eta prestutasuna. D. Dufau ere ondo katolikoa eta kontserbatzailea zen, baina legezkotasun errepublikanoaren aldekoa.

Arbasoengandik datorren haria hausteko zorian dago. Euskararentzat ere hondamendia aurreikusten zuen, eta mezu apokaliptikoa zabaltzen du:

> "Ongia eskarniatua da. Gaizkia nagusituz doa"

Mundu gerra bukatu berriaren aztarnak ageri dira, Modernitateak goia jo du:

> "Munduaren bazter hertsi edo zabaler behako bat ematen duenari bethetzen zaizko gogoa eta bihotza herstura lazgarri batez"[77].



D. Dufauk baikortasun mezua zabaldu nahi du haatik, eta Gernikako Arbolaren sustrai sendoen analogiarekin irudikatzen du mantendu behar diren sinisteen sendotasuna, arbolaren sustraiek ekaitzari aurre egin ahal izango diotelakoan.

**"Garruzeko eguna" ( 1949)**

Eskualtzaleen Biltzarrekoek *euskaldun fededun* (sic) gisa ospatu zuten urteroko batzarra. Meza entzun zuten denek bazkaldu aurretik, eta, orduan ere, apaizak errepikatu zuen "ohiturei jarraitu behar zitzaiela eta balentria zoro, asko ager-modu, usai berri eta atzei bortizki buru egin behar zaiela".

Buru argituek euskalduna deitzen dute betikoan irautera berrikuntza bortitz eta etengabean dagoen testuinguru batean.

**"Amacho"(1950)**

Kontuan hartzekoa da idazle honen izkribuen baitan emakumeek hartzen duten leku handia. Emakumeak ohituren *begirale*ak dira, hainbatetan azpimarratzen duenez: dela emaztekiaren, dela amaren, dela amattoren irudian. Badirudi kontserbatzaileagotzat zituela, edo menera errazagotzat, edo elizkoiagotzat, edo zentzudunagotzat.

Gizarte modernoan ez bezala, seme-alabak gurasoen bizimodu bera izatera deitzen ditu tradiziozale honek. Bere ustez poztekoa da belaunez belaun irautea modu eta jokamolde aldagaitzak.

> "Gazteak funts berak sustengatzen ditu. Zer zoriontasun Amattorentzat!"[78].

Hala ere, gerlek eta kalamitateek itzulipurdikatu egin dituzte tokiak, gauzak eta jendeen gogoak. Esperantza jartzen du Jainkoaren eta Gernikako Arbolaren baitan.

Amattoren (amonaren) figura deskribatzean, gizartearen ikuspegi etnografiko-museistikoa ematen zaigu: ezkontza-ohiturak, herri-erlijioa, lanbide tradizionalak, janzkiak, ohi bezalako ofizioak (nekazariak, apaiza, emigratuak)...

Erronka berrien aurrean barne-bilketa tematia predikatzen du, sinismen aldagaitzaren inolako arrakalari erreparatu gabe.

**"Ganichen makhila" (1950)**

Bere eskubideak harro defenditzen dituen euskaldun burgoiaren sinboloa da makila. Zaldun arrotzak zehatzen ditu Ganix euskaldun jatorrak tresna horrexekin, euskal hizkuntzaz trufatu direlako. Gogoratu dezagun turistak trumilka ari zirela zabaltzen Iparraldean sasoi horretan. Horrez gain, Ameriketara joaleak ere ez ziren gutxi, ahultzen ari baitzen nekazari-estamentua. Kontserbatzaileak gainbehera gelditzen saiatzen ziren. Euskalduntasuna eta euskara bera ere aldaketaren kontrako txerto eta hesiak ziren. "Buru argituek" kezka zuten euskaldunek arima galduko ote zuten ingurumena aldatuta, dela frantsestearekin dela Ameriketako tentaldiekin, emigratu egiten bazuten. Euskal gizartean behinik behin gizakiaren ongizate morala bermatzen zuen Elizak.

Mitologiako numenak herritar arrunta laguntzera datoz kontakizun honetan. Laminek oparitutako makila eskuan, Ganixek arrotzak eta Erregeren gudarosteak bentzutzen ditu eta euskara *eskola handietan* irakastea exijitzen dio Erregeri.

Etorri erromantikoa badu idazleak, mitologia herrikoiak zein Xahoren mitologia asmatuak erabiltzen dituen heinean. Baina euskaldunek dituzten zailtasunen aurrean bururatzen zaizkion irtenbideak sinboliko samarrak dira (Lamiek emandako makilaren laguntza), edo gurari hutsen alorrekoak. Ingelesez *wishfull thinking* esaten zaiona, hau da, desioak errealitatearekin nahastea. Gernikako Arbolaren sustraien sendotasuna gogoratzean, fede kontenplatibo hutsean geratzen da ekintzara deitu gabe.

Nolanahi ere tunantea zen arotz protagonista bihurtuko da makilagile fin eta euskaldun duina. Ahaleginaren kultura zabaldu nahi du autoreak parabola honekin.



**"Ganichen ordainbidea" (1950)**

Euskaldunari trufa egiten zioten erdaldunek. Orain, aldiz, omena berreskuratu du. Nola?

- jakintsuek euskara ikertzen dute.
- diasporan ere etxeek euskal izenak dituzte.
- pilota munduan zehar hedatu da.
- txapela (*gapelua*) handiek eta txikiek jartzen dute.
- euskal kanta eta dantzak zabaldu egin dira.
- agintariak euskal makilaren jabe egin dira.
- etxeko osagarri euskaldunak (oihalak, baxerak, oroipenak, janariak, saltegiak, dirutegiak...) hobesten dira.
- Ganix euskaldunari "oroitgarrizko besta" egin diote idazle, neurtizlari eta jende osteak.

Euskaldun gutxietsia ohore artean hartzen dute Lore Jokoetan. Turistak ere azaltzen dira horrelako jaietan.

Beste hizkuntzalari batzuek *Gernika*n bertan eskatzen zutenaren aldean, nahiko aterabide eskasa da. R. Lafonek[79] ezinbestekotzat dauka soziolinguistikaren datuak aintzat hartzea hizkuntza biziberritzeko; F. Krutwigek antzera dio. Ohoreaz gain euskarak sostengu sozial prestigiotsua behar du, eta gizarte modernoan kokatu behar du balio mundukoien bitartez: lana, prestigioa, ofizialtasuna, aberastasuna eta abar. R. Lafonek eta F. Krutwigek erregistro guztiak behar dituela hizkuntzak azpimarratzen dute.

**"Ikhas euskara" (1951)**

Zertan oinarritzen du D. Dufauk bere deia?

I. Euskara mintzaira zaharra da. Mendeak iragan arren osoki gurea da. Estatismoa eskaintzen dio hizkuntzari aldakuntzaren eta aurrerakuntzaren aurrean.

II. Gurea da. Askatasuna eta indibidualismoa ez dira kontuan hartzen.

III. Jainkoari mintzatzeko egokiena da. San Frantses Jatsukoak, egun oroz, Jainkoarentzat zeuzkan bihotz eta xede altxatze kartsuenak euskaraz egiten zituen. Erlijioa zalantzan jarriko denean, ordea, ez da bermerik izango beraren aterpeko hizkuntzarentzat.

IV. Haur-haurretik ikasten da. Hizkuntza etxe eta herri zokoetan zabalduta dago.

V. Arbasoen mintzaira da. Belaunaldien arteko ezberdintasunak gero eta garrantzitsuagoak izango dira, eta berrikuntzak asimilatzen jakin behar du hizkuntzak bizirauteko.

Guztiarekin ere, D. Dufauk hizkuntza gaurkotzeko kezka dauka, eta herriaren mordoilokeriaren aurrean ere lexiko-sorkuntza bideak erakusten ditu.

### D. Dufau. Laburbilduz

Higikortasun sozialik gabeko gizarte zaharkitu bat iraunarazi nahi du D. Dufauk. Estatusa lortu egiten da gizarte modernoan, eta ez da jaiotzatik behin betirako jasotzen. Honek hizkuntzarako ere balio du. Badaki, beste aldera, hizkuntzari bide berriak ireki behar zaizkiola: unibertsitatea, estandarizazioa, izen ona ematea berari... Ez zen alferrik Eskualdunen Biltzarreko partaidea.

*Ilhundura* eta goibeltasunaren menpe bizi den gizarteari itxaropena eman nahi dio. Programa horretarako Hegoaldeko zenbait sinbolo bereganatzen ditu: Arbola, *Euskadi* hitza...

Bere gogoko gizarte eredugarria Elizaren inguruan eratuta dago. Karisma eta belaunaldiz belaunaldi jasotako ohiturak ditu nagusi. *Amatto*ren nagusitasuna datza ondorengoei balioak komunikatzeko duen abilezian.

D. Dufaurengan badago boterea legitimatzeko zailtasuna, arrotzek iraindu egiten baitute euskalduna. Bere ekuazioan eta Ganixen



irudian, euskalduna tunante izatetik langile fin izatera igaroko da, baina euskaltasuna galdu gabe.

Historiarekin auzi larria dauka D. Dufauk. Etorkizuna ilun ikusten du bi arrazoirengatik: bi gerra hurbilak eta kolokan dagoen nekazari-mundua. A. Xahoren iragan mitikoak, Gernikako Arbolak eta erlijioak ematen izan diote zentzua orainari. Lehenaldiak behar lioke orainari trenpua eman.

Hala ere, gutxi-asko aurrerakuntza posible ikusten du lauso artean. Euskararen politika eskatzen du batetik, eta, bestetik, lana jartzen dio Ganixi zentzabide gisa penitentzia erlijiosoaren ordez. Ez da turismoaren aurkako amorratua, baina euskalduna nagusi nahi luke bere etxean.

## Iñaki Larramendi

| Ezaugarriak/ Idazlea, datak eta ezizena(k)[80]. | Ikasketa-maila. | Zaletasun literarioak eta literaturaren kontzeptu komunak. | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak Gernikaz gain. | Idazkien hizkuntza: | Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Noiz obra guztiak argitaratzen? Errekonozimendua. |
|---|---|---|---|---|---|
| **Larramendi´tar Iñaki (1874-1960). -Bera´tar bat. -Larramendi´tar Iñaki.** | Goi mailako ikasketarik ez. | Ortodoxia erlijiosoa. Bidasoa inguruko paisaia abesten du, bertako gizakiak eta euskara. | Jon Bilbaoren bibliografiaren arabera, inon ez gehiago. | 7 euskaraz. | Euskaltzaindiaren kide urgazlea, Azkue Euskaltzainburu zenean. |

*5. taula. D. Dufau idazlearen datu eta ezaugarriak*



### I. Larramendiren lanak

Sei bertso-sorta argitaratu zituen koaderno hauetan.

**"Euskaldunak izan gaitez" (1951)**

Euskararen egoera kaskarraren aurrean bertsolariak bere atxikimendu osoa adierazten dio. Baztertu egiten dute etxe eta eskoletan, eta horrela jokatzen dutenei barkatzen lagun diezaiola eskatzen dio Jainkoari.

Boluntarismo nabarmena erakusten du dioenean euskara nahi duela bere eguneroko eta bizitzako une guztietan. Euskal Herriko edertasunak euskarak bezainbat erakartzen du bertsolaria:

"Sarritan zait bururatzen

Zeruetan ote naizen"

Gainerako euskaldunak beren burua euskaldun aitortzera bultzatu nahi ditu.

Jarrera optimista antzua delakoan gaude, inolako jardunbiderik ez du proposatzen-eta. Barkamena eta pozaren adierazpena: dena kontenplazioaren alorrean geratzen da. Ironiarik ez dago, mundua ondo eginda dago; oztopo bakarra da Jainkoari laguntza eskatu beharra euskararen kontrarioei barkatzeko, ez besterik.

**"Ama eta aurtxoa" (1951)**

Seaskako haurraren eta amaren arteko harremanak marko batean islatzen dira. Eszena intimista da. Amak haurra amets beltzetatik babesten du amultsuki, aipatu besterik egiten ez diren etsaien beldurrez baitago. Orduko gizarte problematikoaren alegoria ulertu behar al da, umearen ikara ulertzeko? Arerioak dira kanpoan, eta irtenbidea amaren altzoaren babesa da. Testuinguru politiko hartan, hizkera bikoitza eta zehaztugabea baliabide ezaguna zen.

Kostunbrismoa dugu koadro estatiko honetan. Ez dago gizartea aldatzeko ahaleginik. Baina umearen ikarak irudimenezkoak al dira soilik?

Zeruko aingeruek ere pozarren ikusten dute haurraren eta amaren arteko harremana.

Ez dago ironia modernoaren aztarrenik, erlijioak munduaren koherentzia eta sendotasuna bermatzen du. Lurrekoaren ordain hobezina zeruan dago. Azken finean, denak beti bezala jarraitzen du.

**"Erlas-txoriyak" (1950)**

Animalien fabula da eta, alegia guztiek bezala erakutsia du: txori txikiek ez diete erakusten esker onik gurasoei habia utziz geroztik.

Esker onaren bertutea predikatzen da. Jainkoak, gurasoek eta lagun hurkoek mesede egin digute, eta zorra kitatu behar diegu. Irakaskizuna ateratzen du ohiturazko koadro batetik abiatuta.

Analogia erabiltzen da. Ez dago ironiarik, mundua zuzena da hainbat onura ekarri baitizkigu. Arazorik egonez gero, konponbidea aszetikoa da; nork bere burua atondu behar du gauzen ulermena artezteko. Kanpoko mundua aldatu eragiketa izpiritualez egiten da. Kontenplazioa hobesten da akzioaren aldean.

**"Gutxikin poztu zaitea" (1951)**

Gazteen ohiturak zuzendu nahi ditu bertsolariak. Bizitza ona edo *eudaimonia* klasikoa lortzeko bidean, gazteari erakusten zaio osasuna hobesten diruaren aldean. Gazteari mundu honetako harrokeriaz gaztigatzen dio, eta esaten dio zeruko esperantzan egotea besterik ez dugula. Betegintzarrea haraindian dago; hemengo martxa aldatzerik ez dago. Munduan ez dago aurrerakuntzarik, zeren eta gauzek betikoan iraungo dute.

Zaharrak gazteari aholkua ematen dio, ez baitago etenik ez berrikuntzarik denboraren joanean. Zaharra eredugarria da. Zuzen ala oker, gaztetasuna ez da balio nagusia oraindik.



Guziarekin ere, *izatea*ren eta *edukitzea*ren arteko dilema humanismoan zehar zabal kurritzen duen solasgaia da[81]. Esaten zaiguna da edukitzeko gogoak jar gaitzakeela bizitza eta urteak alferrik galtzeko bidean. Herri-filosofiako pasarte bat da.

**"Nere azken egunak" (1951)**

Heriotzaren aurrean edadetuak hartzen dituen ondo hiltzeko asmoak dira. Paradisua zain dauka eta han dago perfekzioa: "animak bakia/ gorputzak asia". Hangoa hemengoaren analogikoa da.

Pitzadura ironikorik gabeko sinesmen sendoa nahikoa da zahartzaroak dituen noraezak gainditzeko.

**"Nere aitortza eta asmuak" (1951)**

Erlijio katolikoaren Pazko errituen azalpena. Artzainak bere ardiak zaintzen ditu, ez dago progresioaren beharrik, esku onetan dago dena.

**"Jesus aurtxori agur" (1951)**

Bizitzak duen garraztasuna onetsi egiten da, Jesus haurrak bere egiten du-eta. Nork bere egoera hobetzearen ardurarik ez da susmatzen; konformidadez bizitzeko deia da.

**"Zeñen polita da Berá" (1953)**

Bertsolariaren sorleku eta bizilekua Arkadia da: polita, eskolan ikasleak onak dira, aire garbia dago, bazterrak ederrak dira. Alaitasunean bizi daiteke.

Gatazkarik gabeko gunea da Bera. Harmoniatsua eta egonkorra. Nitasunak ez du inolako gorabeherarik jasaten denak leku zehatza baitu armonia honetan, ezin egon baita ustekaberik

## Laburbilduz. I. Larramendi

I. Larramendik Landako ingurumena dakarkigu bertsoetan. Neurriak bertsolarien eitekoak dira: neurkera silabikoa. Hau da, ez

da olerkigintza erritmikoa, poeta erromantikoek (ingelesek eta euren eraginez koaderno hauetan J. Mirandek, ikusiko den bezala) usatzen dutena.

Islatutako mundua aldakaitza da. Ez dago ez historiarik, ez sekuentziarik. Erlijioak dena orekan mantentzen du. Bertute aristotelikoak dira jokabidea taxutzeko tresnak: garraztasuna eramatea, esker ona, amaren maitasuna, heriotzaren osteko bizitzan izan beharreko itxaropena, diru-zalekeriaren arbuioa...

Kanpoko munduan eragiteko gurariririk ez dago. Berrikuntzarik ez, eta denak bere horretan dirau.

Klasikotasun greko-latindarraren bidetik eratutako mundu ikuskera da. Erromantikoen nia nekez agertzen da. Natura abegitsua da, esan genezake *beatus ille* topikoa gogoratzen dela Berako herriaren ebokazioan. Perfekzioa haraindian dago, eta hemen garraztasuna etsipen onez onartu behar.

## Lore Jokoen ondorengoak oro har

Erlijioaren itzalpean dagoen gizarte aldakaitza maite dute hirurek.

Lore Jokoen giroko idazle hauengan etxean gauzatzen den amatasun modu bat errepikatzen da.

D. Dufauk ezinegonez ikusten du gerraondoko gizarte hura jasaten ari zen aldaketa; lehengoan irautea da funtsean erremedioa. Errebindikazio minimo batzuk formulatzen ditu, halarik ere. Dekadentea izanagatik, D. Dufauk erakusten du etorkizuneko apustuekiko sentiberatasuna; horregatik eta gai mitologiko paganoen erabileragatik Erromantizismoaren berri baduela ikusten da.

Hegoaldeko bi bertsolariak pribatutasun hutsaren eremuetan bizi dira. Iparraldekoa, aldiz, nolabaiteko eragin soziala izaten saiatzen da.

Nitasunik ez da nabari hiru idazleon pertsonaietan. Politikarik ez, erlijioak betetzen baitu esparru hori.



## Gerra aurreko joeren jarraitzaileak

Bigarren talde honetan hiru idazlek hartuko dute gure arreta: Basarrik, Eusebio Erkiagak eta Orixek. Gehiago dira *Gernika*n molde honetakoak, baina batzuek ez zituzten literaturaren inguruko lanak argitaratu hemen. Azken hauetan emankorrenen artean ditugu I. Lopez Mendizabal eta A. M. Labaien; hizkuntzaren inguruko lanak argitaratu zituzten. Bi horien fitxa deskriptiboak 3.3 atal honen bukaeran emango ditugu.

Orixek bere aldetik ekarpen ugari egin zituen aldizkarian, baina gehienak hizkuntzalaritza edo gramatikaren alorrekoak dira. Esan dezakegu hiru euskarazko artikulu paratu zituela *Gernika*rako, eta jaso egingo ditugu. Autore honek arreta patxadatsua izan du jadanik euskal kritikaren lanetan.

## Iñaki Eizmendi, Basarri

| **Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k)** | **Ikasketa-maila** | **Literatura-zaletasun eta kontzeptu komunak** | **Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak** | **Hizkuntza joerak** | **Joera politikoa** | **Idazkien hizkuntza:** | **Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Noiz obra guztiak argitaratzen? Errekonozimendua** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Eizmendi, Iñaki (1913-1999) - Basarri** | Azpeitiko eskola | Ahozko bertsolaritza, Uztapideren lankidea. Bertsolaritza duintzeko asmoa. Hizketa txukun eta aberatsa; errespetuzko jokabidea. | *El Día, Zeruko Argia, Euzkadi, El Pueblo Vasco,* gerraurrean. Gerraostean: *Eguna, Gudari, Euzko Enda; Gure Herria, Arantzazu, Anaitasuna, Goiz-Argi, Euzko Deya, Egan, Ekin, Tierra Vasca, Herria, Agur, La Voz de España, El Diario Vasco, Karmel...* | Hizkuntza zuzena, txukuna: kazetaritza. Herri-kiroleko kronista. | Ertzaina izandakoa Errepublikan. Gudaria. | 5 euskaraz | 18 urte zituela hasi zen idazten. 1935ean bertsolari txapela. 1984an ohorezko euskaltzain. *Nere Bordatxotik* liburua 1991ean. |

*7. taula. I. Eizmendi idazlearen datu eta ezaugarriak*



Bost bertso-sorta publikatu zituen aldizkarian.

## I. Eizmendi, Basarriren lanak

### "Euskal baserriak" (1949)

Baserriak ez dira bizileku soilak, balio-sorta baten sinboloak baino. Izan ere, hizkuntzaren, arrazaren eta ohituren gordailuak dira. Modernitateak balio mundukoiagoak ditu: aurrerakuntza ekonomikoa, lan-baldintza egokiak, aisia...; landa inguruko baserriak iragangaitzak dira eta betikoak:

"Gure oituren ispillu garbi
oraindik zuek zerate.
Ala izatea komeni zaigu,
mundua mundu den arte"[82]

Berrikuntzarako lekurik ez. Bakarti eta otoizka egotea daukate bertan jaiotako zaharrek bezala: isolamendua aldaketaren kontra. Eredugarriak zaharrak dira. Gaztetasunaren gurtzarik ez dago, zuzen edo oker gizarte modernoetan egin ohi denaren kontra. Belaunaldiz belaunaldi igarotako balio sakratuak gurtzen ditu bertsolariak, erlijioa besteak beste. Gizarte kapitalistaren eta burokraziaren inpertsonaltasunik ez da ageri.

Ingurumen sozial hau akats gabea da, ahistorikoa: irribarretsua eta zoriontsua, herrietako nahaspila eta zaratatik urrun.

Landa eremuko bizimoduaren buruaskitasuna aurkitzen izan da gaztelaniazko literaturan ere; hor ditugu *El villano en su rincón* (Lope de Vega), *Oda a la vida retirada* (Gebarako Antonio Anaia), eta abar. Euskaraz, E. Erkiagak eta Orixek erabili dute topiko hori.

Gizarte aurremodernoetan, karismak autoritatea oinarritzen du, eta zehazki baserriak dira abizenen eta herri-izenen sehaska; horrez gain "Euskal Herria zeruraino jaso duten gizonak" ere bertan sortu dira.

Gerraren ostean eta industrializazio desarroilistaren aurretik baserriko ekonomia berme bat zen gizarte deprimituaren erdian. Aldaketaren kontra, landa eremuari murrua altxatzeko eskatzea nostalgiaren adierazgarria zen. Basarrik gainbehera aurreikusi egiten zuen:

"Euskal baserri maite laztanak,

arren, zutikan zaudete"[83]

**"Arrantzaleak" (1949)**

Lanbide honetakoak ohoratzen ditu bertsolariak, lehenago baserritarrak bezala. Euren bizimodu gogorraren irudi errealista ematen du. Aurrerantzean ere horrela jarraitu beharko dute; irakurlearengandik maitasuna eta ohorea jasoten badute ere, baldintza laboralen hobekuntza progresistarik ez da kontenplatzen. Gogortasuna goxatzeko edo saihesteko arrazionalizazio saiorik ez dago.

"Aurrerantz ere jarrai zazute
lengo era jatorrean.
Amabirjiña bitartekotzat
zuen oitura zarrean"[84]

Edonola ere, arrantzaleen mikrokosmosa ez da euskal bertuteen gordailua, baserritarrena ez bezala, errealismoa gailentzen baita.

**"Itsas ertzeko kontuak" (1950)**

Gorputzaren gurtza deitoratzen du bertsolariak. Kristau zuzentasunaren kontrakotzat dauka andreek hondartzetan duten "apenas" oihalik gabe agertzeko modua.

Denboraren iheskortasunarekin lotzen du fenomeno hau:

"Gaur gaztetasun osoan eta
biar bagoaz gainbera.
Zerbait gerala uste degu-ta
utsaren urrengo gera.
Naiz eta orain dituzutenak



bixtara pozik atera...
Etzerate iañ arro egongo
¡emendik ogei urtera!"[85]

Epe laburreko hedonismo gaizki ulertu baten salaketa da. Gizarte modernoak unean uneko momentua hobesten du, ez baitago maiz epe ertainera xederik jartzeko astirik.

Historikoki, ordukoak dira hondartzetako zenbait aldaketa. Sexuak bereiztea eskatzen zuten arauak bertan behera geldituko ziren. Turismoa Hegoaldera ere iritsi zen, eta iraultza sexuala ekarriko zuen; hasierako zantzuak hemen ditugu. Albornoza erantzita egon zitekeen hareatzan.

Basarrik bat egin zuen apezpikuekin, laxokeria honen kontra mintzatu baitziren publikoki[86].

**"Atzerriko bizitza" (1951)**

Erbesteratuek Frantzian inor gura ez zituen lanbideetan aritu behar izan zuten. I. Eizmendik bere esperientzia kontatzen digu: Landetan ibili zen pinuak mozten. Atzerritarrei egiten zitzaien abegi kaskarra adierazten du.

Konponbidea Euskal Herri idealera etortzean dakusa. Espainian ere, haatik, gobernuak derrigortutako lanak egin beharra izan zuen jaioterrira bueltatu aitzin. Hemen konponbideak bilatzen dira, alegia, Euskal Herrira itzultzea. Etsi-etsian egoera onartzea ez da aurreikusten.

**"Itsasoa aserre" (1951)**

Dirudienez, urte honetan itsasoa zakartu egin zen Donostia aldean, eta zenbait triskantza egin zituen. Ikusi ditugun beste pieza batzuetan bezala, lotu egiten dira naturaren haserrea gizakiaren bekatuekin:

"Zure mugak aintzat artu ez:
¡or egin degu pekatu!

Gero kastiguz bialdu dezu
gugana hainbat olatu.
Gizonak inbiri asko du eta,
Jainkoagatik barkatu,
oraindik bizi nai genduke eta,
etzaitez ola zakartu"[87]

Naturaren jokabideak gizakiaren portaera moralarekin du zerikusia. Kausa-ondorio oker honengatik ez balitz, pasarte hau kontzientzia ekologistaren aitzindaritzat har liteke. Ordea, dena geratzen da bekatuaren eta barkamenaren gurpil antzuan, eta kanpokoan inolako eraginik izan gabe.

## Basarri. Laburbilduz

Basarrik oin bat iraganean du eta bestea aldatzen datorren gizartean. O. Pazek esan zigun poesia modernoa ez dela beti bat etortzen aurrerakuntza modernoarekin, nahiz eta dagokion garaiarekin solasean jardun. Bertsolariak badaki salatzen gehiegikeria, berarekin topo egiten duenean: lan baldintza gogorrak, natura bortxatua, hedonismoaren errazkeria. Ironiarekin ikusten ditu jokabide batzuk.

Baina bere utopia ez du ahazten: nekazari-mundu tradizionala non zoriona eta bakea aurkitu ahal diren. Sinesmen erlijiosoak oreka iraunarazten du. Galdetzekoa da idealizazio honi jarraitzeko modua noiz arte ikusten izan dion bertsolariak



## Eusebio Erkiaga

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literatura- zaletasun eta kontzeptu komunak. | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Idazkien hizkuntza: | Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Noiz obra guztiak argitaratzen? Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Eusebio Erkiaga (1912-1993)**<br>**-Erkiagarre** | Peritu-ikasketak. | Lauaxetaren sinbolismoa hasieran, Parnasianismoarekin nahasteka. Herrikoitasuna poeman eraketan eta idazkeran. Moralismo kutsua eta ideologia literaturaren gainetik. Ohitura-eleberria eta idilioa (*Arranegi*,1950). Lehendabiziko lirikotasunetik, poema ideologikoagoetara; J. R. Jimenezen irakurketa berantiarra. | *Yakintza, Euzkerea, Antzerti, Euzkadi; Eguna, Ekin.* Gerraostean *Olerti, Karmel, Egan, Gure Herria.* | Herrikoitasuna, Lekeitioko herri-hizkera. | Existentzialismoaren kritiko, molde zaharrekoa. | 7 euskaraz Aitzolek eratutako Eusko Olerti Egunen oldarpean hasi zen idazten. Euskaltzain oso 1963an. 1988: Eusko Jaurlaritzako | Letretako Merezimenduzko saria. |

*8. taula. E. Erkiaga idazlearen datu eta ezaugarriak*

Hiru olerki, bertso-sorta bat eta hiru artikulu atera zituen.

### E. Erkiagaren lanak

#### "Bethi gose" (1951)

Olerki mistikoa lapurtera klasikoan idatzia. Jainkoarekiko solasa da. Eguna barnebilduta igarotzen du gauera arte, Jainkoa hurbil sentitzen duen unera arte.

Gizartea ez da ageri: "lanari nagoko, zut, jende artean". Lanetik kanpo ez dago elkarreragin sozialik. Barne-esparruko gorabeherak dira.

Hala ere, ez dira sentipen hauek oreka greko-latindarraren ispilu. Ezinegon existentzialista ikusten da hemen, adierazpide batzuetan. S. Kierkagaard existentzialisten aitzindaria ere kristaua zen:

"Zerumin bizi bat, Iaungoiko gosea,
gizonak barrenean dadukan lezea;
alperrik bilhatu laket eta atsegin,
lehia min horren asetzea ezin"[88]

Politikaren ordez, erlijioa. Jainkoa bada, baina artegatasunak bere horretan jarraitzen du. 1951n E. Erkiagak kezkak izan zituen J. P. Sartreren filosofiari buruz[89], eta urte berean Agustin Deunaren *Aitorkizunak* dituela jarraibide zioen; existentzialismoa arbuiatzeko, doktrina epikureo gaitzesgarriarekin berdintzen du. Gaitzespena herri-filosofiaren haritik dator, zeinak epikureismoa txerrien atsegin bilaketa baldarrarekin identifikatzen duen.

Gerra aurretik sortzen hasitako E. Erkiagak berritze ahalegin herabeak egiten ditu, bai gaiaren aldetik eta bai hizkeraren aldetik. F. Krutwigek proposatutako arau ortografikoei jarraitzen zaie: silaba bukaerako -rr- ( *barrneari, idorrtu*...); kontsonante osteko hasperenketa (*bilhatu, bethean, laphurretan*...); ohi duen lexiko bizkaierazkoa ere ekialdeko hitzek oratzen dute (*zitu, so egin*...); sintaxia ere aberasten du (*egiteke*).



Poemaren antolakuntza erlijio liburuetako egunean eguneango otoitzak ("Orduen liturgia") egiteko ordutegiak gogorarazten dizkigu. Goizean hasi eta gaueko errezora arte kristauak bazekien zein otoitz zehatz egin orduz ordu. Olerkian goizetik gauera arte poetaren ibilbide izpirituala ematen da.

Funtsean, ironia erromantikorik ez dago; nolabaiteko mistikoen *gau iluna*ren fasea igaro beharra bai Jainkoarekin batzeko bidezidor estuan. Mistikoek Jainkoarekin bat egiteko etapen artean bati "gau iluna" ziotsoten. Otoizlariak ezaldia eraman behar zuen berriz Jainkoaren ukitua sumatu aitzin. Barneko leizeagatik ere, zeruko *zituak* edo fruituak ugari datozkio.

Gizaki honi buruz zer esan? Eguneroko bere lanera-itzulia egiten duena da langile hau. Aurrerapenak ez dio kezkarik sortzen, egunean zehar barnebilduta baitago besteekiko sorgor. Gauean Jainkoaren grazia isurtzen zaio, eta benetako bizitza du hori. Mundutik aparte bizi den pertsonaia da.

#### "Euskararen hel-oiua: Unamuno zuzen othe zan? (1952) eta "Erabiltzeke, ez dugu euskara lantzen ahal" (1953)

Lehen artikuluan, idazleak F. Krutwig euskaltzain berriaren asmoekin bat egiten du. Nahitaezkoa iruditzen zaio hizkuntza soziolinguistikoki aupatzea eta kulturarako doitzea.

Erradiografia errealista egiten du: unibertsitate falta, euskaldunak duen harrokeria ikasketen aurrean, argitaratutako liburuen urritasuna... Korpusaren eta estatusaren normalkuntza eskatzen du.

Ekintza arrazionalak aldaketa eragin dezakeela uste du. D. Dufauren jokabide mitologiazalea gainditu egiten du. Poztasun immobilistatik harago joan nahi du, eta aurrera begira gizarte euskaltzaleak eman dituen pausu errealak jartzen ditu eredu gisa: *euskal-irakasgua* jarri dute Iruñean, *Egan* aldizkaria atera da, bertsolari-gudua egin da Donostian, Bilboko Atheneu Berriko gazte batzuk euskara ikasten ari dira, liburu aipagarriak atera dira (Orixerenak, S. Mitxe-

lenarena, J. Etxaiderena, Amilaitzena). F. Krutwigek proposatzen duen Euskaltzaindia berritzearekin bat egiteko eskatzen die euskaltzaleei.

Argumentu ez-materialistak ere erabiltzen ditu euskararen alde. A. Tovar hizkuntzalari espainiarraren aipua dakar:

> "Ama bakoitzak irakats bezaie bere haurreri hizkuntza zahar bikain hori. Españaren harrogailu dena aintzinako gauzen iakitekotz jakintza-giltz".

Bigarren artikuluan euskara erabiltzea behar-beharrezkoa ikusten du biziko bada. Zientzia arloan egin daitezkeen aurrerapenak arbuiatu gabe, "etimologiñoetan" jendeak eskuarki ematen duen denbora gehiegizkoa iruditzen zaio. Huskerietan ibili gabe, gaixorik dagoen euskarari sendagaiak eman behar zaizkio. Medikuaren eta gaixoaren arteko harremanaren analogia jartzen du hori adierazteko. E. Erkiagaren alegoria horretan, herriko mediku apalak hobeto sendatu zuen herriko emakume zabala mediku udatiar andana batek baino.

**Leihoan (1953)**

Leihoaren atzean zalduna noiz iritsiko luzaro zain egon ondoren, emaztegaiak jakingo du zalduna beste andre batez senartu dela. Prozesu hori guztia zaldiak hurbiltzen eta urruntzen egiten duen apatxhotsaren bitartez adierazten da.

Olerki honek ez du bat-bateko bertsolaritzaren neurkera, eta lapurtera klasikoz idatzita dago. Erdi Aroko iruditegia erabiltzen du, eta alde horretatik tradizio berri bati ekiten dio Idazteunetik bestelakoa; horren adierazpidea da zaldun giroa.

Ironikoki erabiltzen du maitasunaren gaia, idiliorik ez dago; euskal balada lirikoen airekoa izan daitekeen arren, hemen sujeritu besterik ez da egiten harreman sentimentala.

Generoaren aldetik emakumearen rol pasiboa nabarmena da.



Pierre protagonista langile apala da, eta konbentzioei jarraituta andrea hartu du berotasun handirik gabe. Irakasleek esan dioten bezala langile zintzoa da, *bidezkoa* denez; ezkondu ere langile-maila apaleko andrearekin egiten da, *bidezkoa* denez. Begien aitzinean dauka protagonistak inolako epikotasunik eta distirarik gabeko etorkizuna. Ingurune sozialak -gurasoek...– ere jokabidea aintzatesten dio.



Maitasun istorio topikoa bizi du emaztearekin, mozkor galant fatidikoa atrapatzen duen egunera arte. Egun horretan disko-jogailua ipinita, abesti malenkoniatsu obsesiboa gozatzen du. Kantaren pasarte obsesibo eta errepikakorrak entzunez koñak botila husten du, eta Marcelle emaztea hiltzen du mozkorraldiaren zoroaldi batean konturatu gabe. Pierrerenak egin du.

Endekatutako gizarte demokratikoaren salaketa da. Hurrengo azpiatalean, J. Miranderen artikulu politikoak aztertzean faxismoaren ezaugarriak emango dira. Izan ere, pentsaera politiko horrek Modernitatearen aurrerabidean beharrezko katebegitzat zeukan bere burua, eta uste zuen ondoez soziala sendabidean jartzeko formula zuela.

Faxismoak erreprodukzio sozialaren mekanismo liberalak (eskola, familia, ezkontza) dudan jarri, eta sexuaren banalizazioa higuintzen du, ipuin honetan ikusi daitekeen erara. Beherago aztertuko dugu J. Mirandek zuen emakumeen ikuspegia.

**"Gizalekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloreetan" (1952)**

Mitologia konparatuko artikulua da, alegia, ondoz ondo jartzen ditu euskal lamiak eta zelten mitologiako numen berdintsuak. Munduaren ikuspegi sinbolista ematen digu, Lauaxetak poesian egiten duen bezala, alegia. Mundu ukigarri eta ikusgarri hau beste errealitate egiazko baten errainua da, eta errealitate hori egituratzeko daude kontakizun eta izaki mitologikoak. Harako Platonen ideien mundu hura, hemen paganotasun zeltaren legendek ordezkatzen dute. Ikusten duguna ez da nahitaez benetakoa, liluratuta bizi baikara; bada hor gaindi zinez egiazkoa den gizadia. Itsastariek ezin ikus dezaketen Gazteen Herri paganoa, atsegin-erria beste hitzez; Bizidunen Lurra non Kondle Gorriak agintzen duen, neba-arreben herria non ez den auhenik edo lorrik ezagutzen.

J. Mirande tradizio modernoaren erdigunean kokatzen da. Neoplatonismotik dator korronte hori; okultismoaren eta hermetismoaren jarraitzaileek gordetzen jakin zuten analogiaren erabilerari

lotzen zaio. Hemengo errealitatea goiko beste ideal baten isla edo analogia baino ezin izan da[118]. Okultistak aipatu egiten ditu.

Ildo antipositibistari jarraituz, entseguaren bukaeran aurrerapenaren kritika egiten du. Lamien oroimena galduagatik, Demokrazia eta Atomoaren fisika dauzkagula dio ironikoki: "Oro ezin euki dezakegu"[119]. Faxismoa maiz industrializazioaren kontra egon zen langile-klasea azkartzea zekarren heinean. Malthusianoa zen faxismoa; hau da, ezkontzen kopurua murriztu nahi izanik, kontinentzia sexuala bultzatu zuen, nahiz eta errealistagoa izatera derrigortu zuen hazkunde ekonomikoak Espainia faxistan adibidez. J. Mirandek utopia kutunak inoizka aipatzen ditu izkribuetan, eta osoro industriaurrekoak dira: Gazteen Lurraldea, zuberotar aitoren semeen antzinaroa eta abar.

**"Iru errien alegia"(1952), "Euskaldungoaren etsaiak"(1953) eta "Abertzaletasunaren inguruan" (1953) artikuluak[120].**

Hiru idazki horiek kontuan hartuta J. Miranderen interpretazio politikoa egiteko asmoa dugu. Aldizkari honen itxieran zerikusirik izango zuten, ahaztu gabe orduko giroan lizuntzat edo ezaintzat eduki zitezkeen eta errepasatu ditugun beste olerkia eta ipuina. Egin zitzaien harrera batekoa ala besteko izan zitekeen, baina faxismoak Europan bazuen jarraitzaile andana, eta nahiz eta herrialdetik herrialdera aldeak egon, ideologia horrek egitura bat zeukan. J. Miranderen idazkietatik ezaugarri horiek ateratzen saiatuko gara; idazlearen beste testu batzuk ere erabiliko ditugu. Gaurko kantagileek ezagun egin dituzte poema apurtzaile bat baino gehiago. Produkzio guztia ez dugu arakatu, baina hurrengo iradokizunak baliagarriak izan daitezke ezinbesteko ñabardurekin autore honen obra zabalago ulertzeko.

- Demokrazia. J. Mirandek ironiaz aipatzen du. Bere hitzetan, pentsaezina da Europa Erdiko ghettoetako haur batek, edo Afrika Beltzeko gizajalearen bilobek izatea Normandiako edo Burgundiako seinen eskubide eta eginbehar berak[121]. Faxismoak demokrazia arbuiatzen du, elite gidariak naturaltasunez hautatzea galarazten duelako. Marxismoa ontzat edukitzea da demokraziari egiten dion beste salaketa.



- Aristokraziak euskalduna izan behar du. Hemengotarrak burgoia izan behar du, eta bere historiarekiko harro egon. Euskal Herriak inguruko herriak sakailatu eta menperatu ditu historian zehar. Bide hori berreskuratu behar dugu (ikusi "Iru errien alegia"[122]). Estatu frantsesak euskaldunak otzandu ditu, eta irendu. Ba da ordu etorkizuna eskuetan hartzeko.

> "Zuzenbide dugu Euskaldun izenaz burgoi izatera, enda sentho eta azkarr bat izan garela baiterakhusate; enda sentho azkarr ororen antzora hauzo ahulagoen bizkarretik hedatzera eta aberastera ekharriak ginelarik. Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbaitek, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekhuan beren gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa "a la française" eredutzat jarten deraukute"[123]

Bidenabar aipatu dezagun M. Legassek idatzi zuela "Iru errien parabola". M. Legasse saiatu zen politikan Iparralderako autonomia lortzeari buruz. Porrot egin zuen hauteskundeetan. Irakurtzen da kasu horretan eta erbestealdi guztian zehar oro har, Hegoaldeko errefuxiatuek ez ez zutela izan inongo asmorik Frantziako agintariekin muturtzeko, eta Iparraldeak izan zezakeen autonomiagatik hain gutxi.

- Indibidualismoa. J. Mirandek, faxista den bezainbatean, diziplina zentzu handia dauka. Gizabanakoak antolakuntzaren eta liderraren esaneko zintzo izan behar du, bestela ez dago helburuak lortzerik. Inguruko Espainiak eta Frantziak erein digute indibidualismoaren hazia errazago mendera gaitzaten. Batasun sozialak, aldiz, indarra emango lioke endari.
- Balio militarrak. Euskaldunak auzo herriei oldartu zitzaizkien historian zehar. Iparraldean, Akitanian zehar beren eremua zabaldu zuten. Nafarroak mugak indarrez zabaldu zituen Hegoal-

dean, Afrikarren eta are penintsulako beste erresuma kristauen kontra. Balio militarrak gogoko zituela dokumentatzeko nahikoa da *Euzko-Gogoa* aldizkarian[124] urte haietan argitaratu zuen artikuluaren izenburua: "Euskaldun guda-zalduntza baten beharkiaz". Gazteei gehien agradatzen zaiena gerla omen da.

Faxistek gogorrak izan behar dute egitasmo erasokorra aurrera aterako badute. Irakurri kasurako "Zakur bati" olerkia zeinetan identifikatu egiten den idazlea aberearen hilotzarekin. Gizaki berria itxuroso atera behar da denik eta egoera gogorrenetik ere, hilotzaren aurrean sorgor agertu behar du. Horren harira, eskandalua bilatu zuen idazleak? Kritiko batzuek J. Miranderi aitortu dioten estoizismoaren bidetik ere interpreta daitekeen poema. Estoikoek zoritxarren aurrean *ataraxia* praktikatzen zuten, ez sentikortzea. Guztiarekin ere, idazle honek jasan behar izan zuen inguru euskaltzaleko hoztasunak bizitza asko zaildu zion.

- Gizaki berria. Europako faxistek euren erresumetako iraganera jo zuten giza-ereduen bila. Bertrand de Jouvenel idazle frantsesak Europa konkistatu zuten frankoak goraipatzen ditu; baita Erdi Aroko "baroi erasokorrak" ere. Italiako faxistek Erromako legionarioak zituzten eredu.

Bertute militarren egonleku euskalduna Erdi Aroa da, ikusten denez gudura doan zaldun nafarraren "Jauregi hotzean" poema hartan. Nafarroako erresumaren historia balio militarren ikuspegitik egiten du.

Iradoki dugu jadanik J. Mirandek burges dekadente eta eme antzekoak hastio izateko joera.

Horiez gain, gizaki berriak kultura gutxietsiko du. Izan ere, kultura murgilduta dago endekatze alkoholikoan eta sexualean. Erotiko eragin soziala izateko diziplina fisikoa behar da. Literatura honetan alkoholaren eragin fatidikoa agertzen zaigu "Ametsa"[125] eta "Maitarien arnoa" kontakizunetan. Lehen ipuinean alkoholaren gehiegikeriak bizitza hondatzen dio protagonistari, konturatu gabe emaztea itotzen baitu euforia etiliko une baten ondorioz.



- Gaztetasunaren laudorioa. Modernitatearena ere baden ezaugarri hau -gizarte tradizionalak edadetuak ohoratzen zituen-, zelten mitologian aurrekaria du. J. Mirande laketu egiten da Gaztetasun Iraungiezinaren lurralde mitikoan. Bestalde, idazleak fantasiako jomuga sexualak maiz ditu gazteak edo gazte-gazteak: hamabost urtekoak "Neskutsak"[126] poeman eta *Haur besoetakoa* eleberriko Therèse ume are txikiagoa. Zahartasuna higuingarria zaie faxistei, edozein ahuldade bezala; "Ametsa" ipuina, erail aurretxoan, emaztea apaingarririk gabe eta zimelduta ikusten du ondoan ohean. J. Miranderen obran protagonistak andrea adinkidea duenean, emakumeak amaiera tragikoa izan dezake, nahiz eta "etxeko-andre ona" izan ("Ametsa" eta "Maitharien arnoa" ipuinetan kasu). "Ametsa" izeneko ipuinean,, zahartuta egoteaz gain emakume horrek bekatu txiki "barkagarriak" ditu, oso adierazkorrak: jantzietan gastatzea gustatzen zaio. Gizarte burges alferrik galduaren mandatari prototipikoa da, porrot egin duen bizimoduaren sinboloa Pierre protagonistaren begietan.
- Bizitzaren arrunkeria. Aipatu berri dugun ipuinean Pierrek ezin du eraman bizi duen egoera:

> "Egia esan, ez zan neskazale amorratua, ezta edarizale, ezta kirolzale... Aundi zan ain zaletasun gutxi eukitzea ezertarako! Erabe edo alper ez aatik. Aitaren aolkuari yarraituz lanbide-eskolan sartu zenean, ikasle ona izan zan; baita orain, lantegian, langille ta zintzo beti... Bizia aski ondo irabazten zuen, ori bai. Bear bada, ez zan Marcelle'kin maitemindu, bañan bidezko da "neska bat eukitzea" ogei-ta-lau urteko mutil batentzat..."[127]

Ipuina xehetasun iradokitzailez betea dago, eta merezi du irakurtzea faxistek gizarte burgesari egiten zioten kritika ulertzeko. Antiheroi arbuiagarria zen Pierre darwinismo arrazazalea onartzen zutenentzat. J. Mirandek hainbat maite duen hitza erabiliz, *azkarren* biziraupena zen faxistek gailentzea nahi zutena; Naturaren baitako eboluzioa azaltzeko zientziak onesten zuen teoria erabili nahi izan

zuten gizartearen bilakabidea bizkortzeko. *Gernika*ko editorialistak espresuki daude jarrera honen aurka:

> "Que lo queramos o no, el dilema se halla planteado de una manera tajante: o darwinismo social o humanismo universal; y en nuestro caso: o vasquismo racial ó vasquismo humano y universal"[128]

- Nazionalismoa. Nazioaren barneko elkartasuna bultzatu nahi zuten faxistek. F. Krutwigek *nazinokeria* salatzen du behin baino gehiagotan, dela hizkuntzaren arloan (garbizaletasuna). J. Miranderi, izenez *ezkerreko* edo *eskuineko* diren politikak engainagarriak zaizkio, eta garrantzitsuena ikusten du Euskal Herriaren nazio gisako batasuna. Naziak sozialistak ere baziren. Konbentzitzeko, J. Mirandek Frantziak erbesteratuekin izan zuen jokabidea salatzen du. Frantziak euskal erbesteratuak ezkertiarrekin elkar hartuta zetozen heinean onartu zituen, agintari frantsesak ere Front Populaire ezkertiarrekoak zirelako, ez baitzuten nazio-arazoa zegoenik aitortu nahi. Historikoki, egia da eskuin frantsesak abertzale deserriratuak gaitzetsi zituena ezkertiar Errepublikanoekin bat etorri zirelako. Eusko Jaurlaritzak beharleku latza izan zuen nazioarteak beraren eite moderatu eta demokristaua kontuan har zezan.
- Ijitoak. "Kama-goli" poema eskaini zien J. Mirandek beraien hizkuntzan, erromintxelez. Omenaldi hau zor zaio leinuaren antzinakotasunari, oker ez bagaude. Ijitoak, berez, Egiptotik edo aurrerago Indiatik datozelako ustea dago. Naziek 500.000 ijitorik gora sarraskitu zituzten, eta inguruko beste herrialde batzuetan ere horrela egin zituzten, Polonian, Serbian, Kroazian.... Badirudi J. Mirande bide nagusitik bazterrera zebilela.
- Antintelektualismoa. Faxistek herria zuten artearen hartzaile nagusi. Hala ere, klase gidarien sarrera ekonomikoak banatzerik ez zuten eskatzen. Adierazgarria da J. Mirandek kontakizun bati jarri zion azpititulua: "Larrazken gau batez (edo "the mad pride of intellectuality"). Faxisten aburuz Arrazoiak indar bizia zapuzten du. Ekintzaren kultua predikatzen dute, eta bortxaren bertutea gogoko dute[129].



- Tradizionalismoa. Tradizionalistek modernismo kulturala humanismo sekularrarekin lotzen zuten, feminismoarekin, askatasun sexualarekin eta familia kristaua desegitearekin. Faxista batzuek hortik jo zuten. J. Mirande, aldiz, anbiguoa da. Mundu paganoa galdu da, eta malenkoniatuta gogoratzen du lamiak eta abar bizi ziren gizartea. Berdenboran familia tradizionalarekiko ikuspegi kritikoa adierazten du; sexu-moralaren aldetik ere jarrera iraultzailea du, eta Bretainia Handian D. H. Lawrence (1885-1930) izan zuen parekoa. Prostituzioaz hitz egiten du maitasun xamurrez ("Pigalle" poeman), eta gorago aipatuta datozen beste fantasia sexual batzuk ere adierazten ditu literatur lanetan.
- Martxa militarrak. Oskorri taldeak kantatzen duen "Eresi" poema J. Mirandek idatzi zuenean, faxismo europarrak hamaikatxo martxa onduak zituen. Beldurra ekiditeko gudu-kanta da. Faxismoak beharrezkoak zituen horrelakoak masak mobilizatzeko koherenteki etorkizun guduzale bati buruz. Egiaz, euskarak antzeko gutxi zituen errepertorioan, olerki erotikoekin gertatzen zen bezala, eta horrek plus bat eransten zien.
- Antiurbanismoa. Esfortzu handirik gabe lot genezake idazle honen paganismoa gizarte nekazariarekin. Bere burua aitoren semetzat zeukan, hau da, Zuberoako antigoaleko leinu baserritarrekoa. Ez dago harritu beharrik, kontuan hartuz gero zelten folklore mitologikoan ere paraleloa dugula: zenbait numen ongilek soilik eskualdean aitzinetik errotutako familiei egiten zieten bisita eta mesede. Alde honetatik zuberotarraren faxismoa Modernitatearen korronte nagusiarekin ez dator bat. Diogu hau zeren eta gizarte tradizionaletan karisma baita erabakigarria, eta berarekin belaunez belaun eskualdaturiko jakituria. Ondorengo garaietan nagusituko ziren inpertsonaltasuna eta jakintza arrazionala ez dira gizarte haietakoak. Irakur bedi J. Mirande beraren "Behiak" narrazioa[130]; behiak jainkosak dira eta gizarte-tradizionalaren jakituriaren gordetzaileak.

Antiurbanismoaren beste zantzu batzuk baditugu atal hauetan:

- “Amsterdamgo oroitzapen bat” lanean, hiriaz ironikoki jardutean, bertako emagalduak eta mozkorzalekeria kontrajartzen dizkio kalbindarraren ustezko zintzotasunari.

- “Larunbat arrats” olerkian hona zer dioen:

“Larunbat arratsa da:
Paris, puta zahar, lotara doa
...ni ere bai”

Sexu-grinak hiria endekatzeko ahalmena du pederastekin, emagalduekin eta agure lizunekin batera.

- Misoginia eta sexismoa. Emakume helduaren rola idazle honen baitan ez dago ideologia faxistak egokitzen zionetik aparte. Buruzagiek emakumea birsorkuntza eginkizunetan jartzen dute erabat. Gizontasunaren bindikapena ere egiten dute, eta emeak arraren menpekoa izan behar du.

J. Mirande 1925ean jaioak 1950ean 25 urte zituen: gizon sasoikoa zen. Ideologia faxistaren arabera, emakumeak gizasemea belaxka bihurtzen du atsegin-iturri den heinean. Bigunkeriak gizona ezgaitu egiten du etorriko diren egiteko latz, larri eta munta handikoetarako, alegia, gizarte degeneratua indarberritzeko. Horrek azal lezake agian pertsonaia eme helduek zenbait ipuinetan jasaten duten pagu txarra; ez dira umedunak, alferrik zahartzen direnetakoak baizik. “Paris-Beuret” olerki ezagunean hara zer dioen:

Büruko emakumeak,
Lodiak, orobat meak,
Danak dirade itsusi.
Nor-nai yoan leike igesi
Aiengandikan, al ba-lu...

Nik aiekin egon bear
–Orrek dit egiten dolu
Orko ordu luzeak zear–



Nik, eusko aitor-semeak!
Oi, debru emakumeak!

Faxismoak ume gehienez erditzen ziren emakumeei urrezko dominak eman ohi zizkien; J. Mirande oraindik gazteak ez dakar horrelako irudirik bere lanetan inondik inora.

- Kristautasuna. Askotan faxismoek kristautasunarekin bat egin zuten, Espainian adibidez. Errealitateak esaten digu, ordea, puntu honen gainean hainbat motako faxismoak daudela. Denak ez ziren bateragarri kristautasunak predikatzen duen bihozberatasunarekin eta mantsotasunarekin.

J. Mirandek bere aldetik dio poema batean Jesukristo berriz gurutziltzatzeko prest dagoela.

J. Mirande A. Rosenberg-en lanak ezagutzen zituen: nazien sasoiko ideologorik behinenetarikoa zen. A. Rosenbergek erlijioaren alorrean III. Reich-ak zein erritu onetsi zitezkeen aztertu zuen. A. Hitlerren Alemanian paganismo guduzalea bultzatu zuen, besteak beste; neopaganismoak eguzkiaren gurtza bultzatu zuen, zenbait erritu teutoniko ere bai. Bestetik, A. Rosenbergek, ohiko kristautasun katoliko eta protestantea ordezkatzeko, Kristautasun Positiboa izenekoa sortu zuen. Agintari naziek errezeloz ikusi zuten gehiengo kristauaren kontra egiten zuen proposamena; alderdiko idealistek soilik egin zioten abegi gogo onez. Antza denez, J. Mirandek idealismorik gorrienaren bidea hatu zuen, politikaren arloan bezala erlijioaren arloan ere.

R. Wagner operagilearen mitologia musikala ere oso gustuko zuten: III. garren Reicharen musikari ofizialetakoa izan zen, nahiz eta R. Wagner bera 1883an hil.

J. Mirandek ere sineste mitologikoak arreta handiz estudiatzen zituen, euskaldunak zein zeltak, zeltazalea baitzen. Deitoratu egiten du pertsonaia mitologiko fantastiko horiek ikusteko jendeak zeukan barne-begia ahuldu izana. R. M. Azkuek egindako herri-mitologia biltzeko lanak (Eusko *Yakintza* tituluarekin argitaratuak) eta J. Thalamasen ildo berekoak arreta handiz irakurtzen zituen.

Izan ere, J. Mirande bretoien artean druida errekonozitua zen. Druidek giza-sakrifizioak ere egiten zituzten. Horren adibidea dugu "Harrizko Jainko bati" olerkia zeinetan giza-sakrifizioa eskaintzen zaion delako jainko horri.

• J. Miranderen testuinguru politikoa: gizarte-giro faxista Frantzian XX. mendeko lehen erdialdean. II. Mundu Gerra aurretxoan faxismoa ez zen frantsesentzat kontu bitxi eta minoritarioa; ezta Europako beste hainbat herrialdetan ere (Austrian, Serbian, Errusian, Italian...), aitzitik, ideologia hori zuten alderdiak arrakastatsuak ziren. Austriak Hitlerren inbasioa erreferendumaren bitartez erabat onetsi zuen ondoren (Anchsluss). 1937an Parti Social Français izenekoak zazpiehun milatik milioi batera tarteko militantzia zuen, alderdi komunistak zeukana baino zabalagoa. Charles Maurras liderraren Action Française ere bazen, antzeko hainbat talderekin batera. Action Française tradiziozalea, antiraultzailea eta nazionalista zen ideologikoki. Historialari guztiek ez dituzte korronte horiek guztiak faxista gisa etiketatu nahi, eta jarrera hori bakoitzaren joera politikoaren arabera ulertu behar da. Esate baterako, *gaullismoa* bera horrelako taldeetatik sortu zela esaten da. De Gaulle izan zen aliatuekin batera alemaniarrak Frantziatik egotzi zituen jenerala, gerora Errepublikako lehendakaria urte luzez izango zena. Beste zenbaiten ustez, gaullismoak politika-talde antidreifusarden (sinplifikatuz, antisemiten) eta bonapartisten iturrietatik edan zuen. Bonapartistek eurek ere buruzagitza probidentzialaren kontua argi zeukaten, eta Führer-aren antzeko jokabide inperialistak zerabiltzaten. Beraz, iturri nahiko nahastuetatik edan du ura gaullismoak ere.

Faxismoa antimodernoa da hein batean. Bultzatu egiten ditu haserrea eta frustrazioa. Irrazionala da, era berean, egiten duen demonologia ezagunean ere; J. Mirande bere gorrotoetan erabatekoa da, dela erlijio kontuetan (Jesukristo gurutziltzatuko luke berriz "Ohiko Jainkoari" poeman) dela gizartea osotasunean epaitzeko orduan. "Paris-Beuret" olerkian lanean duen giroa deskribatzen du, eta dio lankideek maite dutela bera "nola deabruak Yainkoa". "Ni haiekin egon behar eusko aitor-semea" pentsatzen du bere kolkorako poetak. Gorago esanda datorrenez, hiri europarrak (Paris, Amsterdam) deskribatzean, zibilizazio horrekiko sentitzen duen erdeinua berebizikoa da. *Haur besoetakoa* eleberrian etxeko zerbitzari leial edadetua eta Isabela emaztegaia erabateko arbuioz marrazten ditu protagonistak, gizarte konbentzionalaren parte direlako.



*Frustrazio* hitza zeharo adierazgarria iruditzen zaigu idazle honi buruzko lexikoan. Dituen jomuga politikoak hain dira alimalekoak ezen ekintzaile faxista malenkonia sakonean murgiltzen baitzuten ezintasunaren ezintasunez. J. Mirandek euskal gizarte osoari hordago bakartia eman zion, eta ezin izan zion luzaroan eutsi.

Demokrazia liberalaren aurka egonda, sistema errotik kritikatu nahi izan zuen. Erbesteratuta zeuden irakurle euskaldunek nekez onar zitzaketen horrelako planteamenduak -diktadura faxista totalitario baten ihesi zebiltzan oraindik-. Apustu gogor honek militante faxistengan sekulako tentsioa jartzen zuen orokorrean, eta J. Mirandengan ere bai; saminez sentitzen zuen egiten zitzaion abegi eskasa, hainbesterainokoa non euskaraz idazteari utzi baitzion bere buruaz beste egin baino zertxobait arinago. Haatik, geroxeago, A. Ibinagabeitia ere antzera ibiliko zen Caracaseko deserrian non euskarak oso bizitza zaila zeukan, eta horrela ziotson Pariseko lagun gogaide Jon Miranderi gutunean; kexatu egiten zen Euskal Etxeetako *basko*ek zuten euskaltzaletasun urriaz. Ez dirudi, beraz, faxisten kontua denik bakarrik, baizik eta baita ere jazarria zen hizkuntza gutxituaren aldeko militanteen patua. Sakonean, eragin soziala ezinezkoa izateak bakardade eramangaitza zekarkion euskaltzaleari.

J. Miranderen sasoiko idazle eta pentsalari frantses batzuk aipatzearren gogoratu dezagun Bernard de Jouvenel (1903-1987) hasierako ikusmolde politiko faxista aldatzen jakin zuena, Drieu de la Rochelle (1893-1945) bere buruaz beste egin zuena II. Mundu Gerraren bukaeran eta Henri de Man. Idazle horiek bide-erakusle izan zituen zuberotarrak[131].

Irakurtzen da J. Mirandek izan zituen asmo politikoak ez zirela sendoak eta zinezkoak izan, eta ondorioz ezin izan zutela aurrera egin. Dituen poetika eta politika koherentzia handiz bilbatuta

agertu dira bederen. Beharbada bolada hartan euskaraz mintzatzen zen mundua ez zegoen horrelako hazietarako ongarrituta, baina ez dezagun ahaztu Gerra Hotzean Mendebaldeko potentziek Francorena bezalako erregimen faxisten akats demokratikoei ez ikusiarena egin zietela, eta onetsi egin zituztela estatu antikomunista horiek. Ildo beretik, AEBek ez zuten eraitsi ezta Japoniako enperadorea ere komunisten kontrako bermea zelakoan II. Mundu Gerraren biharamunean.

Poesiaren aldetik, arrakasta izan duten J. Miranderen berrikuntza ugari herri kantutegian txertatu dira (Hertzainak, Oskorri, A. Valverde... kantarien eskutik). Ez guztiak. Interesgarria litzateke aukeraketa hori zein irizpideren arabera egin den arakatzea.

**"Lili bat" (1953)**

Gorago aldatu dugu orrialdeotara (1.2.2. atalean) "Lili bat" olerkia osorik. Lehenik, testuinguru politikoa kontuan hartuko dugu olerkia interpretatzeko, eta ikuspuntu etikoa jorratuko dugu ondoren.

Hasteko esan dezagun *lilia* izeneko lorea itxaropenaren bertute kristauaren sinboloa dela hemen. Euskal politikaren alorrean itxaropena gainbehera zetorren Gerra Hotzak eragindako tirabirak medio. Munduaren oreka kolokan zegoen hala AEB-ek eta Britainia Handiak nola bloke sobietarrak beren eragina ahalik eta gehiago hedatu nahi zutelako, Ardatz Hirukoitza (Alemania, Italia eta Japonia) porrokatu eta gero. Zeinek bere orbitara ahalik eta erresuma gehien bildu nahian zebiltzan. Pastelaren banaketa horretan, Mendebaldekoentzat lasaitasun iturria zen mundu gerraren amaieran otzan eta laguntzaile portatu zen erregimen espainol totalitarioa; penintsulan demokrazia berrezartzea, aldiz, komunismoari aukerak ematea zatekeen.

Gerra Hotzaren giro goriena 1948-53 tartean izan zen, hau da, aldizkariaren bizitza ia guztian zehar. Arerio berria komunismoa zuten euskal erbesteratuen sostengatzaile internazionalek, eta etxera bueltatzearen kontua inoizko urrunen zegoen. Bigarren derrota bat bezalakoa izan zen errepublikanoentzat, eta legalitatea



berrezartzeko zituzten planak eperik gabe atzeratu ziren. Errealitate etsigarri honen kontra matxinatu zen J. Mirande *Gernika*ko idazlanetan.

Poema honetan erabiltzen dituen "gure" errepikatuek idazlea inplikatu egiten dute, eta erakusten abertzale sentitzen zela; ikusi besterik ez dago "Abertzaletasunaren inguruan" artikuluaren izenburua eta edukia. Zalantzak uxatzeko hona bi lerro poematik:

"Itxaropenak ...
erhanik ditu aiten leinuak
eta zainhiltzen gaitu semeak"

Euskal familiari egindako kalteak azpimarratzen ditu. Nazioa=familia berdinketak faxismoaren ikuspegi paternalista islatzen du. Esan dugunez, gizarte aurreratuek, zuzen ala oker, inpertsonaltasunera eta mekanismo burokratikoetara jotzen dute. Honaino interpretazio politikoa.

Bigarren puntuaren, etikaren bidezko interpretazioa M. J. Olaziregi literatur kritikoak eman duen datu batetik abiatuko da: J. Mirande estoikoa zen.

Filosofia estoikoa, kristautasuna gailendu aurretik loratu zen erromatar inperioaren hondarrean. Predikatzen zuen existentziako izuei aurre egin behar zaiela beldurrik gabe eta soseguz, baina itxaropenik gabe; zailtasunak zinez latzak izanda ere, berdin. Desioak ezabatuta beldurra deuseztatu egiten da. Senekak pasarte batean dioenez:

> "Anda angustiado e inseguro de sí mismo aquel a quien cautiva alguna esperanza, aunque esté a su alcance conseguirla, aunque sea de fácil acceso, aunque nunca sus esperanzas le hayan defraudado"[132]

Ez da J. Miranderen kasua, baina etorkizunean fidatzea ez da estoikoaren araberakoa, izan ere, etorkizunean gertatuko direnak ez dira gauza ziurra. Oraingoa da ongirik hurbilena, eta estoikoak ez du itxaropena gerokoan jarriko. Izan ere, esker onez hartu behar du estoikoak momentuan momentukoa gehiagoren eskakizunik egin gabe. Iragana gertatua da, eta oroitzapen hutsaletan murgiltzen gaitu.

J. Mirandek orainari ekin nahi zion, eta proposamen hori belaunaldi gazteek ulertu egin zuten; bide itsuan sartuta zegoen abertzaletasun tradizionalaren aurka konponbide berriak bilatuko zituzten hurrengo hamarkadetan. Haustura hori nabarmenagoa izango zen 1960ko urtearen inguruan. *Gernika*n berritzaileek badute pisua argitaratu zituzten orrialdeen kopuruari begiratuta; lehenengo urrats hauek esanguratsuak izan ziren.

## J. Mirande. Laburbilduz.

Esan daiteke *Gernika*ren orrialdeetan atera zela euskal letren plazara lehenengoz J. Mirande gaztea. Ekarpen hori ez zen oharkabean pasatu.

Jakinaren gainean zegoen berrikuntza zekarrena, eta ez zituela beti bestek onez hartuko bide berri hauek. A. Ibinagabeitiak partikularki adorea ematen zion, eta euskal literaturaren norabide aldaketa onesten zuen. Biontzat inportanteena zen olerkariek beren bulkoak zintzotasunez adieraztea literatura homologatzeko Europako besteekin.

Dirudienez, argitalpena bertan behera gelditzeko arrazoia burubide zaharberritzaile hauei *Gernika*k eskaini zien abegia izan zen. Lagunarte humanistak sinistu egiten zuen kritika eta eztabaida lasaiek dituzten bertuteetan; abertzaletasun ofizialaren eta tradiziozalearen sektoreek ez horrenbeste.

Ezin ukatu, ordea, literatura honen taxu faxista. Egia da, era berean, euskaldunek munduan bizi zuten kinka ez zela fantasia askotarakoa. Hala ere, nolabait esplikatu behar da J. Mirandek izan zuen arrakasta (lanen argitaraldiak, ikerketak, musikatzeak...). Batetik, ziplo botatzen ditu sentipenak eta edozein irakurlek identifikatzea lortzen du. Bestetik, fantasia erotiko horiek guztiak sinpatikoak egiten zaizkio publiko bati.

Ekarpen politikoa ere ebaluatu behar zaio. Diotenek urratu zuen ibilbide politikoa antzu gelditu zela aitortzen diote poeta gisako balioa, baina politikari gisa kaskar samarra deritzote. Ezkerrak jaso eta iraunarazi omen zuen J. Miranderen literatura, eskuinak beltzuri egiten zion orduan. Euskal letretara aire freskoa ekarri izana askok aitortzen diote.



Faxista zen aldetik ematen zuen gizartearen eta giza-harremanen irudia lazgarria da. Hala ere, momentu gozatsuak baditu orrialdeen artean: “Behiak” kontakizuna edo “Ametsetarik” olerkia dira batzuk. Ordea, pesimista zela deblauki deklaratzen zuen.

Literaturak egin duen ibilbide modernoan, utopiaren eta ironiaren artean koka daiteke. Errealitatea nekeza zitzaion, sinesmen erlijioso kristauaren izpirik ez zuen, eta idazlanetan bere espak adierazten zituen. Haatik bazuen aitoren semeen utopia paganoa bultzatzeko kuraia. Europako herri gutxituen (Irlandaren, Bretainiaren, Galesen...) mitologiak asko preziatzen zituen, eta arnasbide zitzaizkion.

Estetizista eta sinbolista zen aldetik pieza paregabeak utzi dizkigu. Egin zituen olerkiek erritmoa txertatzen dute lerroetan errepikapen fonetikoak erabilita. Ordura arte silabakako zenbaketa zen usuena, eta lerro-bukaerako hoskidetasunak ere bai, bertsolariek eta Erromantizismoaren aurrekoek ohi zuten bezala.

J. Mirande ez zen beti bakarrik ibili. Pariseko lagunartekoak zituen Peillen anaiak, A. Ibinagabeitia, F. K. Krutwig eta hainbat lagun abertzale Britainiakoak. Ideologikoki ere ez zegoen erabat bakarrik idazlea, sasoi batean bederen. F. K. Krutwigek adibidez, J. Mirandek *Gernika*ko artikuluetan islatu zuen giro abertzale urduri bera ezagutu zuen; orduan esaten zirenak egituratzen jakin zuen *Vasconia* (1963) liburu giltzarrian. Nolabaiteko gogaidetasuna bazegoen arrazoi bata ala bestea medio Parisen elkartu ziren euskaltzaleen artean. Ildo beretik, Tx. Peillenek ere Lehen Eusko Mundu Biltzarrean (1956) inork ez bezala, euskaraz egin zuen hitzaldia hizkuntza berreskuratzeko neurri zehatzak eskatu zituenean.

## Jon Etxaide

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: | Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jon Etxaide (1920-1998) -Aldapeko - Zelai** | Delineante-ikasketak | Kutsu pedagogikoa. Gerra aurrekoak (Lizardi, J. B. Elizanburu, Etxepare) hobeak zirela uste zuen gerra ondorengoak baino (Iratzeder, B. Gandiaga , G. Aresti), lehenek berrikuntza ekarri zutelako, bigarrenek ez bezala. Herriaren maila jaso nahi zuen geldiro euskaraz, hizkuntza bera eta errezepzioa. | *La Cruz, Egan, Euzko Gogoa, Yakin, Aranzazu, Karmel, Gure Herria, Olerti, Zeruko Argia, BRSVAP, El Diario Vasco. Euskararen alde, Euskera.* | Euskalki guztietatik hartzen zituen gauzak, bai eta euskal tradiziotik ere (euskara bildua). | Aitzolen artikuluak irakurriz, aitaren euskaltzaletasunetik abertzaletasunera igaro zen. | J. Miranderen lankide. P. Lhanderen miresle. Joxe Artetxerekin harremana. Euskaltzaleak ere estimatzen zituen: Onaindia, Tx. Peillen; J. Mirande, J. Zaitegi, I. Fagoaga. | 7 euskaraz. | 1956.ean euskaltzain urgazle; 1991.ean euskaltzain ohorezko. |

*16. taula. J. Etxaide idazlearen datu eta ezaugarriak*



# J. Etxaideren lanak

“Bertsolariaren miñezko kanta” (1951)

Euskal literaturaren historian itsutasunaren inguruan sortu diren hiru olerki gogoratzen ditu: P. M. Otañoren “Limosnatxoa”, J. B. Elizanbururen “Solferinoko itsua” eta T. Monzonen “Gazte itxuaren izarrak”. Asmoa du gerran fisikoki hebainduak izan diren gudariei elkartasuna adieraztea.

**“Olentzero” (1951)**

Olentzero datorrela-eta egiten diren eske-kantak deskribatzen ditu. Nahi du gizarteak abagunea adiskidetzeko aprobetxatzea, anaia arteko gerraren ondotik zatituta baitzegoen. Ospakizun pozgarriak jendeen arteko haserre eta gorrotoak baretuko lituzke alaitasuna dela medio.

Marko kostunbrista batean -Gabonetako ohitura ezaguna deskribatzen du-, “etxe-maitasuna eta pake-zaletasuna” sortzeko aitzakia da Eguberria.

Donostian bizi zen J. Etxaide; *Gernika*n argitaratzen dizkioten zazpi idazkietan deituraz izenpetzen duen lan bakarra da. Gerrako gertakizun garratzez ari denean, “Aldapeko” edo “Zelai” ezizenak erabiltzen ditu.

Ironiarik ez dago; ohiturak gauzak bere onera ekarriko ditu, eta zailtasunak urtu egingo dira anaitasunean.

**“Errimin” (1952)**

Poema hau eskaintzen dio Orioko legezko alkateari, hainbat bezala garai hartan erbestean bizi zena. Gerrak kanporatutakoari herrira itzuli ahal izatea opa dio. Hautetsiaren biografia errealista egiten du.

**“Ernio´ko gurutz-egalpean” (1953)**

Olerki honetan otoitz egiten zaio gurutzeari. J. Etxaidek altxamendu militarra gogoratzen du, eta Elizaren jokabidea gaitzesten

du bidenabar. Elizak, ezpatadunen alde jarri, eta euskal fedea kordokatu zuen. Gogoz kontra bada ere, kosta ahala kosta otoitzez jartzen da errukia eskatuz.

Sinismen sendoak tradizio erlijiosoaren barnean mantentzen du olerkaria. Gertakizun latzek ez diote bestelako argitasunik ematen, eta Elizaren kritika muga neurritsuen barnean geratzen da. Ironiarik ez dago, beraz.

**"Argi-urratze" (1953)**

Bertsolari-eiteko hamabi bertsoz osotutako sorta da. Gerrako kalamidadeak berritzen ditu era nahiko gordinean. Honako hauek aipatzen ditu: odola, sutautsa, eta herri honetako seme leialen odola pozoitzen duten bele beltz zein zuriek. Kontraste gisa eta azken bertsoetan, Iparragirreren "Gernikako Arbola" kantuak sinbolizatzen duen argi urratzea iragartzen du idazleak. Argi betearen aurreko argi-urratzea ikusten du ere.

Kontuan hartzekoa da "Gernikako Arbola" lehen aldiz kantatu eta ehun urteurrenaren kariaz idazten duela. "Eman da zabal zazu" zen aldizkariak azpitituluan zeramatzan lau hitzak. "Gernikako Arbola" kanta Gernikako hiriak inguruan biltzen duen sinbolismoaren alderdi musikala da.

## J. Etxaide. Laburbilduz

Tradizio karlistakoa zuen familia. *Gernika*ko idazkietan kantatzen du gerra galdu duen herri kristauaren tragedia. "Karlista aundi-maundiek" zituzten jarraitzaileen saldoari egindako iruzurrak aztoratzen du. Hala ere, fedean aurkituko du aurrerantzean ere atsedena eta babesa. Idazki hauek epiko-historikoak dira. Alde horretatik, garai bertsuan egin zituen eleberrien parekoak dira. Salbuespen batekin, ordea; *Gernika*ko lanetan iragan historiko hurbila (Gerra Zibila) du hizpide, eta handik lasterrera idatziko zituen eleberrietan historia urruna (Erdi Aroa, P. T. Etxahunen XIX. Mendea…). Ziur aski, narrazioetan egiten zuen iraganera jotzeak diktadurako zentsura eta errepresioa zituen arrazoi. J. Etxaide espetxean egona zen *Gernika* aldizkaria estatu barnera sartzeagatik. Haatik, gizakiaren izatea eta dituen bulkoak (gorrotoa, jeloskortasuna, haserrea, lizunkeria...) testuinguru historikoaren gainetik daudela iradokitzen digu.



Tragedia hurbilak pasarte errealistak sortarazi dizkio idazleari, adibidez, Orioko alkate errepublikanoaren erbesteko bizimoduarena, Elizaren gerrako jokabidearena edo gudarien ibilerena.

Alde horretatik berritzailea dela deritzogu, erlijioa eta politika desberdintzen baititu. Sinesmenari tinko eusten dio, aldiz, gizarteak bizi dituen gorabehera larrien erdian.

Gerrak errealitate minak ikusarazi dizkio idazleari, baina ortodoxia gailentzen da beraren lanetan. Hierarkia katolikoak egindako bidegabekeriak ere onartu egiten ditu fedearen bertutez.

## Berritzaileak. Laburbilduz.

Hiru puntu nagusi aipatuko ditugu talde berritzailearen ekarpena laburbiltzeko. Idazlanak analizatzearen emaitzak sailkatu ditugu euskararen, literaturaren eta pentsaeraren hiru arloetan.

- Euskara. Iratzederrek bizipen mistikoak zituen, eta alaitasun hori kutsatzen zion euskaraz bizitzeko zuen irrikari. Hala ere, II. Mundu Gerran soldadu ibilia zen, eta bazuen gizartearen berri. Konturatzen zen eskola frantsesa eta turismoa euskararentzat kaltegarriak izan zitezkeela. Turismoarekin aberasteko guraria kritikatzen zien euskaldunei. Ematen dituen konponbideak gizakia moralki hobetzean zeutzan, beraz. Turismoa egitea zuzena zela zioen, baina bateragarri egin nahi zuen euskararekin eta fedearekin.
  Aurrerakuntza ez zuen Iratzederrek ñabardurarik gabe onartu nahi. Hala ere, mundua zuzena iruditzen zitzaion, eta erlijioak bermatzen zuen ongia nagusituko zela.
  F. Krutwigek euskara kultura jasoa adierazteko trebatu nahi izan zuen. Gizarte modernoko eginkizunak bete ahal zitzan,

maileguen bidea proposatzen zuen aurretik inork ez bezalako indarrez; garbizaletasuna gehiegizko nazionalismoaren fruitua iruditu zitzaion.

- Literatura. A. Ibinagabeitiak homologatu egin nahi zuen euskal literatura. Gizakiak bizitzan zehar dituen gorabeherak adierazteko gai izan behar zuen. Premiazkoa zen idazlea zintzoa izatea, euskal literatura duina izango bazen. .
  J. Mirandek erromantizismo anglofonoaren (E. A. Poeren, Blake bezalako olerkari ingelesen...) iturritik edan zuen, eta berrikuntza nabarmenak txertatu zituen euskal literaturan. Literatura espresiobide asketzat zeukan edo ariketa jostagarritzat. Bizitzaren ikuspegi etsitua islatu zuen "Ametsetarik", "Neskutsak" eta "Ametsa" lanetan, fedearen sostengurik gabekoa. Formalki erritmoa baliatu zuen, hoskidetasuna bertso-lerroen barnean eginez. J. Etxaideren lanek gerra amaitu berriaren gaineko gogoeta egin zuten. Horren kariaz sortu ziren egoera latzak gogoratu zituen: gerran itsu geratutakoak ("Bertsolariaren miñezko kanta"), erbesteratutako alkatearen kasua ("Errimin"), Elizaren jokabide makurra eta gerraren gogorra ("Ernio´ko gurutz-egalpean").
  Lekukotasuna ematen duen literatur moldea da. Hala ere, Euskal Herrirako itxaropenik bazuen ("Argi urratze"), eta fedean tinko jarraituko zuen zalantzak baztertuta.
- Pentsaera. *Gernikako* euskal idazleek bat egin zuten aldizkari humanistaren ildo orokorrarekin. A. Ibinagabeitiak edozein iritzi kritikatzeko askatasuna defendatu zuen. Dogmarik ez zuen onartzen, eta aldarrikatu egin zuen Ilustrazioaren programa laburtua. Irekitasuna eskatzen zion kontenplalariari. Aldizkariak bezala berak ere "populaire" izenondoari garrantzia ematen zion, Gernika Lagunartekoek beti bilatzen baitzuten eragin soziala.
  F. Krutwigen pentsamoldean, errealitatea ezin denez ezagutu, gizakiak tolerantea izan behar du derrigorrez. Historia hurbileko gerrek eta hondamendiek gizaki modernoaren jakituriaren azala erakutsi zuten. Ez dago gauza ziurrik. F. Krutwigen poesia utopiarik gabekoa da, ironikoa. Hala ere, Greziako mitologia baliagarria izan zitzaion Gernikaren bonbardaketa azaltzeko analogiaren bitartez.
  Pentsaera politikoaren alorrean F. Krutwigek gehiegizko nazionalismoa kritikatu zuen, gerra ekartzeagatik.
  Modernitatearen kritika egin zuen, eta uste zuen industrializazioak kalteak ere ekarri dizkiola gizarteari, zeren eta lehengo langile artisaua masa bihurtu da; izpiriturik gabeko materia bihurtu da gizakia. Uste zuen Gerra Zibilaren eta II. Mundu Gerraren ostean F. Nietzscheren filosofiak porrot egin duela.
  J. Mirandek abertzaletasun demo-kristau tradizionalaren kritika nietzschearra egin zuen. Euskalduna endekatuta zegoen bigunkeriaren bigunkeriaz, eta endak ezaugarri erasokorrak berreskuratu behar zituen inguruko herrialdeei buru egiteko.

Oro har, berritzaile hauek munduko errealitateaz jabetzen dira, eta planteamendu eraberritzaileak dakartzate. Gutxi asko denek daukate utopiaren bat zeinean beren asmoak ezarriko dituzten, nahiz eta sarri herren dabilen. Mundua ez da tolesgabea, eta arazoak ematen ditu. Egoera latzak eramatea zaila zaie, Iratzederri hizkuntzaren egoera dela eta, J. Etxaideri eta F. Krutwigi gerraren ondorenak direla eta, J. Miranderi mundu abertzalearen egoera lastimagarria dela eta.

# Bukatzeko

## Aldizkaria

Lanaren hasieran aldizkariaren testuingurua zehaztu dugu. Agerkariak erbestean bizi ziren euskal intelektual ugari batu zituen, eta tartean baziren euskal idazle esanguratsuak (A. Ibinagabeitia, J. Mirande, F. Krutwig, Orixe, D. Dufau...).

Gerra Zibilaren ostean errealitatearen irakurketa humanista eta modernoa egin nahi izan zuten. Giza- eta gizarte- zientzietako gaiak argitaratu zituzten Euskal Herriko hiru hizkuntzetan. Alderdikeriarik gabe edozein lumari egin zioten harrera. Espainiako gerra bukatu (1939) eta sei urtera (1945) jaio zen aldizkaria. Garai bertsuan II. Mundu Gerra (1939-45) gertatuko zen, eta ondoren Gerra Hotza (1948-53). Gerra Hotzaren sasoian argitaratu zen Gernika Donibane Lohitzunen eta Buenos Airesen.

*Gernikak* euskal tradizio humanista berreskuratu nahi zuen, talde eragilearen editorialetan eta hainbat artikulutan ikusten denez. Tradizio hori mamitzen funtsean XVI.eko humanistak (Donibaneko J. Uharte, Azpilkuetako Martin, Vitoriako Frantzisko...), XVIII.eko Azkoitiko Zalduntxoak eta XIX.eko J. M. Iparragirre aritu dira.

A. Ibinagabeitiak polito azaltzen du zer ulertu behar den *humanismo* hitzarekin. Bere ustez edozein iritzi arrazoiaren arabera galbahetu daiteke, ez dago dogma ukiezinik. Bestetik, kontenplazio huts "zakarra" ez du onesten, eta bai, aldiz, irekita dagoena. Horrela jokatzen du berak idazle gazteagoekin (F. Krutwigekin, J. Miranderekin...). Gernika Lagunarteko partaideek iritzi horien parekoak azaldu zituzten argitaratu zituzten artikuluetan eta editorialetan.

Oraintsu onartu dute Espainiako Gorteek Memoria Historikoaren Legea (abenduaren 26ko 52/2007 Legea). Diktaduragatik eta 1975tik aurrera trantsizioan gerra hartako gairik aipatzerik ez zegoenez, ezin izan da oroitze-ariketa egin estatuan Espainiako ejer-



tzitoa gaizkituko zen beldurrez, gatazka amaitu eta 68 urtera baino. *Gernika*koek, aldiz, ariketa hori aspaldi egina zuten, erbestean zeudenez gero.

Haiek bertatik bertara bizi izan zuten hondamendia; ezagutu egiten zuten garaile berriek ezarri zuten askatasunik gabeko egoera. Esaterako, F. Krutwigek Mendebaldeko zibilizazioaren ikuspegi etsitua eman zuen, eta bakea eta tolerantzia iruditzen zitzaizkion gizakiak premiazkoak dituen balioak. Mundua engainagarria da –pentsatzen zuen- ustekabe galantak eta izugarriak ematen dizkigu, beraz onar dezagun lagun hurkoaren ikuspegia.

J. Etxaidek ere ahalegin berezia egin behar izan zuen Espainiako Elizaren jokabide gaitzesgarria onartzeko, bera ere fededuna zen aldetik.

*Gernika* aldizkariak aukeratu zuen lerro editorialaren ondorioz itxi zuen. Inongo alderdik inposa ziezaiokeen diziplinatik aparte egon nahi izan zuen. Aldizkaria sortzeko ekitaldian "Euzkadi ofiziala" bidaide bazuen, gero askatasunez jokatu zuen, eta tirabirak izan zituen beste erbesteratu batzuekin. Azkenean EAJko abertzaletasunaren sektore ofizialek laguntza ukatu, eta ekonomikoki ito egin zen. J. Miranderi publikatu zizkioten artikuluek non abertzale demo-kristauen *zintzotasuna* kritikatzen baitzuen, ez zuten noski lagunduko alderdiaren erabakia aldatzen.

Atal batean *Gernika*k plataforma gisa betetzen zuen zeregina aztertu dugu. Euskal idazleak batzeko balio izan zuen. Gerraoste minean ez zegoen azpiegitura editorialik, ezta merkaturik ere. Aldizkariak eskaintzen zuen topagune zabala arnasbidea izan zen hainbat idazlerentzat, eta komeni izan zitzaien aprobetxatzea. Orixek zioen: "revista... donde cabíamos peces de todos los colores". Aldizkari eklektikoa, beraz.

Lapurtera klasikoaren proposamena *Gernika*ko orrialdeetan egin zuen F. Krutwigek.

Aldizkaria bultzatu zutenen esanetan, hainbat luma erdaldun zein euskaldunek parte hartu zuten proiektu honetan, eta pozik

zeuden jasotako oihartzunarekin. Itxura guztien arabera, I. Fagoaga zuzendariak poltsikotik ateratako sosei esker bizi izan zen publikazioa azken urteetan. Independentzia ideologikoak sostengu ekonomikoa behar zuen.

## Literatura

Literaturaren alorrean, historiaren atal hau sakonago ulertzeko helburua jarri genuen. O. Pazek (1974) jarri zuen marko teorikoa baliagarria izan da, eta idazle bakoitzak Modernitatearekin zein harreman duen zehazten lagundu digu.

Zientzia esperimentalen alorrean ez gara ari, eta metodoaren balioespena egiteko azalpen saturatua eman zezala jarri genuen helburu. Bi kontzeptu zehaztu genituen: analogia eta ironia. Marko teoriko honek literaturaren errealitatea azaltzen lagundu digu, eta ez da geratu auto-erreferentzia teoriko hutsean; idazlan konkretuek saturatu egin dituzte planteamendu teorikoak.

Literaturaren eboluzioan ironiak gero eta leku handiagoa irabazi du, idazlanetan autoreak gazteagoak izan diren heinean.

Hiru taldetan sailkatu ditugu euskarazko idazleak: Lore Jokoen ondorengoak, Gerra Zibilaren aurreko giroaren jarraitzaileak eta, azkenik, berritzaileak.

